

TOKIKOM

2021eko otsaila | 211. zenbakia

aitzar!

txikiak



Irene Diaz Abellan
Pantaila txikian





Konekta zaitez gurekin!



Parte hartu aikor.eus webgunean

Zure argazkiak eta albisteak bidali



E-posta:
aikortxori@aikor.com



WhatsApp:
688 86 41 35

-  4 Eretxiak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  11 Itxialdia
-  12 Gurean izan da... Jakoba Errekondo, agronomoa
-  14 Gaztea eta... Peio Rica, moda-ikaslea
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Zaharberitze lanak Bilboko hilerrian
-  20 Irene Diaz, kazetaria
-  25 Emaus
-  26 Gure merkatariak
-  30 Eskolara pandemia-garaian
-  32 *Geldoko koplak* liburua
-  34 Teknologia... Matilda efektua
-  35 Aikorrizketa...
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



12 Jakoba Errekondo



32 *Geldoko koplak*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorriketan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Erika Bilbao, Ixone Zubieta, Itsasne Zubiri eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Iratxe Pirla

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Elkar zaintzeko garaiak dira

doia eta Esmeraldarekin hitz egin dut: ezinean dabilta. Bizitza sostengatzeko enplegua daukate, eta indarrak ahituta. Orain denbora berean lan bolumen handiagoa egiteko eskatu diete.

Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte behar dugu zaindu gaitzaten. Areago, bizitzako une batzuetan zainduko ez bagintuzte, bizi ere, ezin izango gintezke bizi. Batzuek oso ondo ulertu zuten hori eta negozioa egin dute: gure bizitzen kontura aberastu dira.

Elderrekin eta Lucianarekin hitz egin dut: ezin dute gehiago. Emakumeok doan egiten ditugu zaintza lan gehienak. Hori gutxi balitz, zaintza lanetan dabilzan langileak baldintza ez duinetan lan egitera behartu ditugu, inongo aitortza sozialik eta ekonomikorik gabe. Hori bai, dena exijitu diegu, guk maite ditugunak zaintzen dituztelako. Pandemia garaian esan diegu: utz ezazue bidean zuen osasuna, baina salba itzazue maite ditugunak.

Urtebete pasata, inolako errekonozimendurik gabe jarraitzen dute. Eta hori gertatzen da non eta kotxeko pieza bat egitea adin nagusiko pertsona bat artatzea baino hiru aldiz gehiago ordaintzen den mundu honetan.

Izan ere, garai berriotan, gatazka zaharrek aurpegi gordinena erakutsi digute: ustelena. Eta horiek gure zaugarritasunarekin urteetan egindako negozioa jasan ezin bilakatu da. Baina ez al gara guztiok joko horren konplize bihurtu? Ez al da guztion kaltea eta arazoa?

Horrexegatik behar dugu Kalitatezko Zaintza Sistema Publiko Integral eta Komunitarioa. Zaintza lan guztiei dagokien aitortza emango diena, lan baldintza duinetan. Pertsona orok eskubidea baitauka era egokian zain dezaten; eskubide hori bermatu behar du sistema publikoak. Ezin dugu onartu zaintza lanekin negozioa egiten jarraitzea. Horregatik, urtarrilaren 26an bezala, langileak martxoaren 4an grebara



ERIKA BILBAO
LAB sindikatuaren
eskualdeko arduraduna

joango dira. Zer egingo dugu guk?

Nabarmena da gerra garaiak bizi ditugula. Dena dago zalantzan. Handik eta hemendik, hainbat gatazka eta arazo. Baina gerra bakarra da: gu guztion bizitza erdigunean jarriko dugun ala ez. Sistema "birdoitze" osoa egiten ari da eta jokoan dago noren bizkar egingo den. Gure bizitza gudu-zelai bilakatu da. Urte honetan bizitzaren zaugarritasunaz eta berorren sostenguaren garrantziaz jabetu bagara, defenda ditzagun elkarrekin.

Goazen dantzara!

Aze poza hartu nuen *Berria* egunkarian irakurritako "Dantza eta Osasuna eskutik helduta" (*Berria*, 2021/01/13) artikulua erekin.

Osasuna guztion ahotan dagoen garai honetan, prebentzio mailan egin daitezkeen gauzen artean, euskal dantza dagoela jakinarazi digu Maialen Araolaza fisioterapeutak egindako ikerketak. Eta ondo aztertuta, arrazoia duela esango nuke: dantza eginez, jarduera fisikoa egiten da, harremanak lantzen dira, eta batez ere bizipoza sortzen du pertsonengan. Dantzariak garenok ederto dakigu zer den hori! Baina nik bakarrik momentuko onurari errepa-



IXONE ZUBIETA
Lainomendi dantza
taldeko kidea

ratu diot, eta nire sorpresa izan da etorkizunera begira dakarren onura ezagutzea: dantzarekin arreta eta oreka lantzen direnez, zahartzaroko narriaduraren prebentziorako ere ona omen da, adibidez, errotzeak prebenitzeko.

Egungo egoeran, dantza entseguak gelditu behar izan baditugu ere, etxean lekua egin eta musika apur batekin oinak mugituz, askok ahal bezala ekin diogu... (ikertu beharko dena da auzokoei sortutako kaltea).

Zorionekoak gara orduan txikitatik dantzan gabiltzanok, eta besteak jakizue inoiz ez dela berandu!



Inauterietako online lehiaketak Loiu

Loiuko Udalak online lehiaketa bi antolatu ditu Inauterien harira: bata argazki lehiaketa da, eta bestea, bideo-lehiaketa. Argazkiak zein bideoak otsailaren 28ra arte aurkeztu daitezke.

Argazki-lehiaketari dagokionez, bertan Loiu erroldatuek bakarrik hartu ahalko dute parte eta banako irudia aurkeztu beharko dute. Argazkia egin, eta udala@loiu.eus helbide elektronikora bidali behar da eskaerarekin batera. Horrezaz gainera, Facebooken argitaratu behar da #Loiui-nauteriak hashtag-a erabilita. Argazkiarekin batera datu hauek azaldu behar dira: izen-abizenak, NAN-zenbakia, adina, telefonoa, eta tutorearen baimena, parte-hartzailea adin txikikoa bada. Hiru kategorian egongo dira eta kategorian bakoitzeko hiru sari emango dira. Hamabi urtera artekoek material didaktikoa eta jokoak jasoko dituzte sarizat, eta 13 urtetik 17 urtera bitartekoek eta 18 urtetik gorakoek, herrian gastatzeko bonuloiuak; guztira 420 euro.

Bideo-lehiaketan, bestalde, gehienez lau loiuztarrek osatutako taldeek hartu ahalko dute parte, eta bideo bakarra

aurkeztu. Bideoak askoz jota 90 segundo iraungo du. Bideoak ere lehen aipatutako helbide elektronikora bidali beharko dira, esandako baldintza berberak beteta. Hiru kategorian egongo dira. Hamabi urtera arteko kategorian bost sari emango dira, hala nola tabletak, *bluetooth* entzungailuak eta jokoak; gainera, parte-hartzaile guztiek oparitxo bana jasoko dute. Hamahiru urtetik 17 urtera bitarteko gazteen kategorian hiru sari emango dira: tabletak eta bonuloiuak (140 euro guztira); parte-hartzaile guztientzat ere oparitxoak egongo dira. Azkenik, 18 urtetik gorakoek kategorian hiru sari emango dira: 290, 250 eta 200 euroko bonuloiuak. Gainera, 200 euroko bonuloiu bat zozketatuko da saririk lortu ez duten parte-hartzaileen artean.

Sariak martxoaren 15ean jakinaraziko dira udal-webgunean eta gizarte-sareetan. Epaimahaia udal-zinegotzi batek eta teknikari batek osatuko dute eta, besteak beste, jantzia, makillajea, originaltasuna eta eszenografia hartuko dituzte kontuan irabazleak aukeratzeko orduan.

Okerrak zuzenduz



Aurreko alean, Imanol Aparicio-ren istorioa eraman genuen 14. eta 15. orrialdeetan. Zoritzarrez, akatsa egin genuen eta izena txarto idatzi: Imanol barik, lbai idatzi genuen. Azaldu genuenez, Imanol 21 urteko derioztarra da eta duela bost urte hankako minarekin hasi zen. Hainbat proba egin ondoren, sorbaldan tumore bat topatu zioten eta hori hedatuta zegoen bizkarrezurrera, hezur-muinera, sakrora eta burura. Ebakuntzak egin arren, gazteak hanken mugikortasuna galdu zuen eta medikuek esan zioten denboraren poderioz gorputz osoarena galduko zuela. Hala ere, Bartzelonako Vall d'Hebron ospitaletik deitu zioten tratamendu experimental batean parte har zezan. 2018ko uztailetik hona hartzen dabilen tratamenduari esker, inongo laguntza barik oinez ikus dezakegu herriko kaleetan. Mugikortasuna Bartzelonan, hotolean, zegoela berreskuratu zuen. "Bat-batean oinak mugitzen hasi nintzen. Hura bai poza! Ezin nuen sinetsi", kontatu zigun. Tratamendu experimentalak denek, medikuek ere ez dakite zer gertatu litekeen. Nolanahi ere, Imanolen lehen tasuna ondo egotea da gaur egun. "Poz-pozik nago, autonomia naizelako eta ez nagoelako inoren beharrez: nik bakarrik hartu ahal dut dutxa, txakurra kalera atera, igeri egin, aitari leku batera edo bestera lagundu ahal diot..."




EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
pottxoa
ogia
edaria
9€

T: 94 454 55 55
Bestorene 5, Behea
48160 DERIO

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea


ORDUTEGIA
Astelcheuetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30


Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857



OAKLAND
ENGLISH

LIBURUDENDA PAPERDENDA



ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tif. / Faxa:
94 452 29 10



PATXI
COOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Bendakaldea, 4 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 946 522 857 | info@patxi.coop | www.patxi.coop



ZAMUDIO
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com



Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

Derioko Udalak Ibaiondo futbol-zelaiko hesia berritu du

Kirol-instalazioak hobetzeko eta egokitzeko programaren harira, Derioko Udalak 48.000 euro baino gehiago ipini ditu Ibaiondo futbol-zelaiko hesia aldatzeko. Azaldu dutenez, beste hesi bat ipini dute, "modernoagoa eta seguruagoa". Lanak abenduaren erdialdean hasi, eta urtarrilean bukatu ziren. Jokalekuko barrualdea eta perimetroa hesitu da, "instalazioan kirola modu seguruan egiteko".

Egoera txarrean zegoen hesia ken-



du, eta haren ordez hodi galvanizatutako hesia ipini da. Hesi berriak "egungo kirol-araudia betetzen du eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzen du". Esther Apraiz Derioko alkatearen esanetan, lanen helburua izan da futbol-zelaia leku seguruagoa izatea. "Batez ere udalerriko taldeen entrenamenduetan eta futbol-partiduetan aritzen diren erabiltzaileei begira. Zelaia oso eginkizun garrantzitsua du, oinarri-futbola sustatzen duela eta instalazioak ehunka haurrek eta kirolarik erabiltzen dituztelako; horiek guztiak ekipamendu eta azpiegitura seguruak behar dituzte. Horri lotuta, gogora ekarri dute instalazioak egunero pertsona askok erabiltzen dituztela, baita talde federatuetako eta kirol-eskolako kirolari askok ere. Talde horien artean daude CD Derio Federatua (gizonen taldea zein emakumeen taldea) eta Arteaga (kirol-eskola).

Zabor-tasari lotutako hobariak itxita egon diren establezimenduetarako



Lezamako Udalak zabor-tasari lotutako hobariak ezarriko ditu nahitaez itxita egon diren establezimenduetarako. Ordainsariak 2021eko zergei eragingo die eta, osasun-egoera dela eta, establezimendua 2020an itxita egon den egun naturalen kopuruaren arabera izango da. "COVID-19a dela eta, herriko merkatarien eta ostalarien ekonomia kaltetu egin da; haien laguntzeko ordua da, euren ekono-

mia bultzatu ahal izan dezaten", esan du Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkateak.

Hobariak ezarri ahal izateko, aldatu behar da zerbitzu publikoak ematea eta jarduera administratiboei lotutako tasak arautzen dituen ordenantza. Proposamenari alegazioak aurkezteko epea amaituta, ordenantza berria onartuko da eta, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, in-darrean jarriko da.



Tuperrak eta oihalezko poltsak banatuko dira Larrabetzun, hondakin plastikoak murrizteko

Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, Larrabetzu 2025 egitasmoan parte hartze-ko prozesuaren harira hondakin plastikoak murrizteko proposamena egin da. Udalak proposamena aintzat hartu du eta tuperrak eta barazkiak eta fruta gordetzeko oihalez-ko poltsak banatuko ditu herritarren artean. Guztira 250 poltsa, 150 tuper handi eta 100 tuper txiki banatuko dira.

Udalarekin lankidetzan, herriko salto-kiak arduratuko dira poltsak eta tuperrak

banatzeaz. Tuperrak eta poltsak oparitu-ko dizkiete halakoak erabili ohi dituzten herri-tarrei, "orain arte hondakin murrizketaren alde erakutsitako konpromisoa saritzearren". Bestalde, tiket-sistema erabiliko da poltsak eta tuperrak herritarren artean banatzeko: egindako erosketak bakoitzeko tiket bat ja-soko dute eta bost tiket batzen dituztenean hartu ahalko dute poltsa bat edo tuper bat. Hainbat dendetako tiketak batu ahalko di-tuzte, eta nahiago duten lekuan trukatu.

Tasak bere horretan utziko ditu Zamudiok

Zamudioko Udalak jakinarazi duenez, udal-tasak bere horretan utziko ditu 2021ean. Gainera, herriko ostalaritzako establezimenduak salbuetsita egongo dira terrazari lotutako tasa ordaintzetik. "COVID-19aren eraginez ezarritako neurriak eta derrigorrezko itxierak direla eta diru-galerak izaten ari dira, eta neurria haiei laguntzeko modua da".

Era berean, kiroldegiak eta udal-kirol-degiak tarifa berbereri eutsiko diete, eta "hortaz, beste kiroldegi batzuetakoenak baino merkeagoak izaten jarraituko dute". Bestalde, udalak sortatutako hondakin araberako tasa ezarri zuen, baina ia bertan behera utzi zuen pande-miaren ondorioz. Azaldu moduan, aurten egitasmoa berrartuko dute eta urrats berriak ere egingo dituzte.



Gure ikasleen ahotan

"Mondragon Unibertsitatearen metodologia lan mundura enfokatuta dago"

Kerman Dañobeitia (Lezama, 19 urte) Ingeniaritza Me-katronikoa graduako 2. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean. Datorren urtean hasiko da Dual eredu-an.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?


Orain arteko ikasketak Lezamako eskola publikoan eta Derioko institutuan egin ditut. Beti izan naiz ikasle ona, eta eskolan nengoenetik erakarri ninduen zientzien munduak. Ingeniaritza ikastea oso gazte erabaki nuen. Bi zaletasun nabarmenduko nituzke, kirola egitea eta gauza berriak ikastea.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Me-katronikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Trasteatzea oso gustuko dut, txikitatik. Nahiz eta ni beti izan naizen gauza mekanikoen zalea, nire aitak piztu zidan elektrizitatearen mundurako interes hori, bera elektrizitatean aditua baita. Hori dela eta, mekatronikako gradua oso aukera interesgarria iruditu zitzaidan. Mondragon Unibertsitateak eskaintzen duten metodologia oso erakargarria eta praktikoa iruditzen zait.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Gauza asko ikasi ditut eta esperientzia oso aberasgarria izan da niretzako. Azken finean ez da gustuko duzuna ikastearen esperientzia bakarrik, baizik eta herritik kanpora bizitzen



joateak dakarren "independentzia" kutsu horrek erakusten dizkizun gauza guzti horiek baita ere.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Po-liteknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Lan mundura enfokatuta da- goen metodologia bat bezala definituko nuke. Irakaskuntza klasiko eta teorikotik pixka bat urruntzen da. Honek ez du esan nahi ez dela teoriarik ematen, baizik eta honi ematen zaion ikuspuntua ezberdina dela. Ez da inge-niari izateko behar den informazioa ematea eta listo, baizik eta informazio horren aplika-zioak ezagutu eta aztertzea. Horretarako PBL metodologia erabiltzen da, non gu errealita- teko arazoan aurrean jartzen gaituzten.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Irakasleekin dugun tratua oso ona iruditzen zait. Gertutasun eta konfiantza puntu bat dago, beste toki batzuetan ez dagoena. Instalazioak ere asko gustatzen zaizkit. Azkenik, unibertsitateak enpresa ezberdinekin duen harremana oso positiboa iruditzen zait.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure as- moak?

Nire asmoa ikasketak bukatzerakoan maste-rra egitea da printzipioz. Aitzitik, garrantzia gehiago ematen diot nire ikasketekin bat datorren lanpostu bat bilatzeari, gehiengoak bezala. Alemanian edota beste edozein herri- alde batean urte batzuk lanean jardutea gustatuko litzateke.

Formakuntzarako eta kontrataziorako laguntzak eskatzeko epea zabalik Sondikan

Sondikako Udalak 28.000 euro bideratuko ditu herriko langabetuen formakuntzara eta kontrataziora. Dagoneko eskaerak aurkezteko epea zabaldu da. Zehatz-mehatz, 8.000 euro bideratuko ditu langabeen prestakuntza-ikastaroetara eta eskatzaile bakoitzak gehienez 400 euro jasoko ditu. Bestalde, udalak 20.000 euro bideratuko ditu herriko langabetuen kontrataziora. Laguntza Sondikako zein Bizkaiko edozein herritako enpresek eskuratu ahalko dute eta gehienez 2.000

euro jasoko dute kontratatutako sondikoztar bakoitzeko. Lan-kontratuak gutxienez hiru hilabetekoa izan beharko du.

Formakuntzarako laguntza jasotzeko eskaera urriaren 31ra arte egin ahalko dira; eta kontrataziorako laguntza jasotzeko eskaera, irailaren 30era arte. Eskaerak eta dokumentazioa Sondikako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahalko dira, edo udaletxera bertara eraman. Deialdiaren oinarriak eta informazio gehiago, www.txorierri.eu webgunean.



lazko manifestazioa Larrabetzun

COVID-19aren mehatxupean ospatu genuen Martxoaren 8a, eta aurten pandemiak eragindako osasun-krisiaren gorabeheren pentzuan ospatuko dugu. Nolanahi ere, formatua hau edo bestea dela, herrietan eta hirietan aldarrikapen-ekitaldiak egingo dira.. Otsailko alea ixtean jaso ditugu horietako batzuk.

Derion, esate baterako, Martxoaren 8an bertan elkarretaratzea eta auto-karabana antolatzeko asmoa dute Koxak talde feministako kideek. Halaber, datoren inguruko egunetan beste ekintza batzuk ere antolatu nahi dituzte, hala nola hitzaldia, murala eta bideoforuma. Gizarte-sareetan emango dute ekintza horien berri.

Emauseko Bitartean eguneko zentroaren erabiltzaileen eskutik, historia egin duten emakumeen irudiak ipiniko dira Derion aste osoan zehar. Emakume horien artean daude Ada Lovelace matematikaria, informatikaria eta idazlea; Rosa Parks aktibista afroamerikarra eta Valentina Tereshkova astronauta errusiarra. Era berean, eskumuturreko solidarioak ipiniko dira salgai Adarve tabernan, kiroldegian, Baserri Antzokian eta Arteaga estankotan eta batzen den dirua

XURREGOITI
JATETXEA
Lauroeta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com

sarraila-denda
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURTAGUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkola, 4 lonja
48160 Derio

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Martxoak 8



Garrasia Sondikako talde feministaren ekitaldia 2020an

Acambi elkarteari emango diote. Acambi elkarteak bularretako minbizia edo ginekologia-minbizia duten emakumeen alde egiten du lan.

Bestalde, Zapata Gorriak Zamudioko talde feministak eta Lagunandre emakumeen elkarteak mezu feministadun banderatoak ipiniko dituzte herriko hainbat lekutan. Era berean, "Zamudio feminista" leloa duten ikurrak banatuko dituzte dendetan, tabernetan eta zerbitzuetan, baita beren kideen artean ere, erakusleioetan zein balkoietan ipini ditzaten. Banaketa martxoaren 6an egingo da Nekazamudio azokan. Martxoaren 8an, 19:00etan, elkarretaratzea egingo dute Leizaola plazan eta handik manifestazioan aterako dira. Horrezaz gainera, udalerrira eremu gorritik behin aterata, hitzaldi bi egingo dituzte: "Zergatik esaten dugu generoa belarri artean dagoela, ez hanken artean?" eta "Nire potxotxean eta nire mototxean neuk agintzen dut; de lo políticamente correcto a lo incorrecto". Hitzaldiak Abella abokatu-taldeak emango ditu. Talde feministak azaldu duenez, herrian haien banderatoak ipintzeak ekarri du pertsona batzuek mezuak ez ulertzea eta txarto sentitzea. Halaber, zentsura sortu da lelo batzuen inguruan. Hitzaldiek zentsura hori salatzea dute hel-

buru, eta leloen esanahia azaltzea.

Argazki-lehiaketa

Zamudioko Udalak "Gehien miresten duzun emakumea" argazki-lehiaketa antolatu du. Lehiaketan zamudioztar guztiek hartu ahalko dute parte eta kategoriatan bi egongo dira: bata, 16 urtetik beherakoentzat; eta bestea, 16 urtetik gorakoentzat. Argazkia egiteaz gainera, parte-hartzaileek lerro batzuk idatzi beharko dituzte azaltzeko zergatik miresten duten irudiaren emakumea. Parte-hartzaile bakoitzak argazki eta testu bakarrak aurkeztu beharko ditu. Lanak txapelketak@zamudio.eus helbide elektronikora bidali beharko dira martxoaren 15a baino lehen. Parte-hartzaileek adierazi beharko dituzte izen-abizenak, helbidea eta telefono-zenbakia. Parte-hartzaile guztiek 10 euroko diru-txartela jasoko dute saritzat, herriko ostalaritzako establezimenduetan etxera eramateko janaria eros dezaten. Bestalde, lau argazkirik onenak *Zamudiorain* aldizkarian argitaratuko dira. Epaimahaia Zamudioko Udalak aukeratuko du: epaimahaikide bat kultura-zinegotzia edo berak esandako pertsona izango da, eta bestea, argazkigintzari edo arteari lotutako pertsona.

Bestetik, Martxoaren 8an elkarretaratze bi egingo dituzte: bata 12:00etan, Sabino Arana plazan; bestea 18:30ean, Agirre Lehendakariaren plazan.

Moreak talde feminista lezamarrak ere elkarretaratzea antolatu du otsailaren 8rako, 19:00etan. Era berean, gogora ekarri dute Virginia Imazen antzezlanaren egongo dela martxoaren 5ean, eta herriko Berdintasun Kontseiluaren eskutik ere -elkarrekin haren partaidea da- zenbait ekintza izango direla.

Larrabetzun, eta hango Berdintasun Batzordeak antolatuta, hiru ekintza egingo dira gazteentzat zein nagusientzat. *Festa dezagun gaurdanik geroa* dokumentala martxoaren 4an izango da; eta "Gure buruaren jabe" hitzaldia martxoaren 11n. Biak 17:30ean izango dira Anguleri kultur etxean eta izena ematea egin daiteke martxoaren 2ra eta 9ra arte hurrenez hurren, Angulerin bertan edo liburutegia@larrabetzu.eus helbide elektronikora mezu bat bidalita. Autodefentsa feministari buruzko ikastaroa ere izango da eta martxoaren 20an egingo da Angulerin, goizean eta arratsaldean. Izena emateko azken eguna martxoaren 16an izango da. Umeak zaintzeko zerbitzua egingo da ekintza guztietan.

Abiadura handiko Internet 2022an ailegatuko da Txorierriko gune sakabanatueta



Bizkaiko Foru Aldundiak 10 milioi euroko inbertsioa egingo du Interneterako sarbide ultrabizkorak lurraldeko udal-erri, eremu periferiko eta nekazaritzako inguru guztietara heldu daitezzen. Unai Errementeria ahaldun nagusia adierazi duenez, zuntz optikoa datorren urtean ailegatuko da Txorierriko eremu zurieta-ko etxebizitza sakabanatu guztietara.

Egitasmoaren helburua da Internet landa-guneetako eta kanpoaldeetako 7.621 ataritara -8.190 etxebizitza eta negoziotara- eramatea. Aurten, zuntz optikoa Enkarterriko, Arratiako, Mungialdeko, Uribe Kostako, Busturialdeko eta Durangaldeko 4.242 etxebizitza-tara helduko da; eta hurrengo urtean, Busturialdeko, Durangaldeko, Nerbioi-Ibaizabaleko, Lea Artibaiko, Txorierriko,

Meatzaldeko eta Bilbo Handiko 3.948 etxebizitza-tara. Etxebizitza horiek eremu zurieta daude, baina telefoniako operadoreek ez dute bertara hedatzeko asmorik.

Zuntz optikoaren sarea Telefónica enpresak zabalduko du eremu zurieta sakabanatuta dauden atari guztietara, eta abiadura handiko Internet eskainiko zaie hurrengo baldintza hauetan: gutxienez 300 megako konexio simetrikoa izango dute (igotzeko eta jaisteko), datuak mugarik gabe transferitu ahal izateko; baldintza ekonomikoak populazio-dentsitate handiko eremuetan egiten diren merkatu-eskaintzen antzekoak izango dira; eta zerbitzua etetea dakarten gora-beheren % 95 24 ordu baino gutxiagoan konpondu beharko dira.

Lehendakari Agirre plazako jolastokia berritu du Zamudioko Udalak

Zehatz-mehatz, txinboetako baten ordez beste bat ipini da, beste txinbo bi konpondu eta zaharberri dira, eta txinbo berria jarri da. Berritze-lanetan 48.389 euro ipini dira eta, haiei esker, "umeek gune seguruz eta berrituz disfrutatzen jarraitu ahalko dute", adierazi du udalak.

Bestalde, Zamudioko Udalak jakinarazi duenez, laster umeentzako beste jolasgune batzuk ere hobetuko dituzte. Horrela, bada, eskolako txinbo batzuk egokituko dira eta, gainera, batzuen ordez berriak ipiniko dira (7.332 euro). Era berean, udala lanean dabil herriko gainerako umeen parkeak konpontzeko eta berritzeko lanak esleitzeko. Esandakoaren arabera, laster egokitze-eta mantentze-lanak egingo dira Santi Mami auzoan, Sabino Arana plazan, igerilekuan, Lehendakari Leizaola enparantzan eta haurreskolan, eta txinbo berriak ipiniko dira Santi Mami auzoan, Elexalde plazan eta Bidekoetxe parkean. Horretarako, 141.961 euroko inbertsioa egingo du Zamudioko Udalak.



Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaindizu BERRIAK:
Logopedia
Podologia
Klimasajera

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriñen etorbidea, 9 - Lonja | Arteaga araskino | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

elekma

URRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK, TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXIKIAK

lehenengo markak • Preziarik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txoriñen etorbidea, 25-3.N. 48180 Loro
T: 944 539 232
www.elekma.es

LEJARRENE JATETXEA
Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu.



Eskua luzatu lagunari. Eskua luzatu umeei. Eskua luzatu gazteei. Eskua luzatu langabezia daudenei. Eskua luzatu nagusiei. Eskua luzatu beldurtiei. Eskua luzatu gaixoei. Eskua luzatu elkarteei. Eskua luzatu askatasunari. Eskua luzatu albokoari. Eskua luzatu, guztiok bat garelako; egin eta eragin!



KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami suzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55



SANTI MAMI
ALKATARIAK
Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

“Kultura berez baratzea da”

JAKOBA ERREKONDO | paisajista eta agronomoa

Lagatu Zamudioko euskara elkarteak gonbidatuta, Errekondok Nekazamudio azokan parte hartu zuen urtarrilean. Baratzezaintzari eta lorezaintzari lotutako jakituria partekatu zuen kultur etxeko patioan batu zirenekin.

t: Itxaso Marina Ondarroat

Erabateko konfinamenduan, jende asko animatu zen balkoian edo lursail txikian ortua edo lorategia ipintzera.


Bai, azken urteetan joera hori egon da eta konfinamenduan areagotu egin da. Jendea osasunaz arduratzen denean, elikaduraz eta janariaren kalitateaz arduratzen da.

Guk ekoiztutako produktu osasungarriak jateaz gainera, zer nolako onurak ekartzen dizkigu ortu edo lorategi txikia izateak?


Ortuan edo lorategian lanean edo haietan pentsatzen bazabiltza, gauza positiboa da azkenean; adibidez, fisikoki. Izan ere, baratzea edo lorategia gimnasioa dira. Eta ez hori bakarrik: bertan zabiltzan bitartean, ez zaude telebista aurrean, tabernan edo osasunerako txarrak diren gauzak egiten.

Sekreturik ba al dago ortu edo lorategi txikia eta dotorea izateko? Zuk ezinbestekotzat jotzen duzu papera eta arkatza hartu, eta egiten den eta gertatzen den guztia idaztea.

Hori sekretu handienetako bat da, toki, balkoi eta baratze bakoitza mundu bat delako: orientazioa, eguzkia, haizea... Eta, gainera, baratzezain bakoitza ere ezberdina da. Hortaz, gauza horiek guztiak idatziz ikasi egiten da. Guk urtero agenda bat argitaratzen dugu, jendeak ikusteko sasoi bakoitzean zer egin behar den eta agendan gauzak idatzi eta ikasteko. Bestalde, balkoiko lorategiaren sekretua da pentsatzea landareak non biziko diren: azken batean, loreontzi batean biziko dira eta, naturan bizi direnek ez bezala, ez dute beren kaxa bizitzeko gaitasunik izango; beraz, askoz gehiago zaindu beharko ditugu, eta batez ere ureztaketa kontuan hartu. Esandakotik aparte, ez dago inongo sekreturik.



a: Dani Blanco / www.bizibaratzea.eus



Pandemiaren eraginez, beharbada, arnasten dugun aireaz askoz gehiago kezkatzen gara orain. Zure azken liburuan, *Etxeko landareak*, airea garbitzen duten landareei buruzko atala idatzi duzu; aloea edo potosa dira adibide batzuk.

Gero eta gehiago ikertzen da horri buruz eta, ondorioz, gero eta gehiago dakigu. Argi dago landareez inguratuta bizi bazara, nahiz eta etxe barruan izan, arnasten duzun airearen kalitatea hobea dela. NASAk, esaterako, ikerketa asko egin ditu leku itxietako aireko kutsadura garbitzeko gai diren landareen gainean. Uste dut *Etxeko landareak* liburuaren atal hori polita dela, jendea jabetzeko landareak ez direla bakarrik gauza eder bat, baizik eta beste eginkizun bat ere badutela.

“Landareez inguratuta bizi bazara, nahiz eta etxe barruan izan, arnasten duzun airearen kalitatea hobea da”

Ortua edo soloa gure kulturaren dugun elementu inportanteena da, zure ustez. Zergatik?

Kultura *cultivare* da, eta kultura moduan ulertzen dugun guztia, hala nola musika, antzerkia eta arkitektura ondo

jateari zor diogu; gaizki jaten duenak ez du sormenerako, kulturarako eta jakintzarako lagungaririk. Kultura berez baratzea da, noski. Nik beti esan dut baratzeaz ezer gutxi dakiena ez dela jantzia.

Berrikuntzei adi, tradiziozkoa ahazten dugu, tamalez?

Teknikak aurrera egiten du eta ezin da ukatu ikasi egiten dugula; hala ere, argi izan behar dugu lehen ere gauza asko ondo egiten zirela. Badi-rudi batzuetan hori ahaztu egiten dugula eta kanpotar batek etorri behar duela esatera hau edo bestea nola egin behar dugun eta horri nola deitu

behar diogun. Esate baterako, konposta. Euskaraz hitz asko ditugu konposta adierazteko –nik luarrak erabiltzen dut–, zeren antzina hori era askotan egiten zen hemen; baina jende modernoak ez du hori ezagutu. Teknikekin berdin gertatzen da: batzuek berriak izango balira bezala erabiltzen dituzten arren, lehendik ere erabili izan dira hemen, baina beste era batean, abonua berdea kasurako. Ni ez naiz berez tradizionalista; nolana ere, uste dut gure aurrekoek egiten zituzten gauza askotatik ikas dezakegula gaur egungo arazoak konpontzen eta lurra ondo lantzen. Izan ere, milaka urtean egin du jendeak hemen esperientzia; gu ez gara lehenak lurra lantzen.

“Aurrekoek egiten zituzten gauza askotatik ikas dezakegu arazoak konpontzen eta lurra ondo lantzen”

Zenbait komunikabidetan kolaboratzen duzu, zure liburuak ondo baino hobeto saltzen dira, jendetza batzen da zure hitzaldietan... Zein da zure arrakastaren sekretua?

Irratian hasi nintzen, duela 37 urte eta, imajinatuko duzuen bezala, irratan landareez hitz egiteak eskatzen du azalpen oso egokiak eman behar izatea, jendeak ondo ulertzeko zertaz ari zaren. Horregatik obsesionatu naiz komunikazioarekin, agian. Beste aldetik, nahiago dut jendeak bere hitzak erabilia gauzak azaltzea, horrela gehienok hobeto ulertuko ditugula pentsatzen dut eta. Saiatzen naiz jendeak dakien hori balioan jar dezala, zeren eta gaur egun ematen baitu lurrak edo nekazaritzaz dakiena ezikasiaz dela. Orduan, jendearen harrotasuna sustatzen ahalegintzen naiz, harro sentitu daitezen lurrari lotutako zerbait dakitelako eta hori guztioi azaltzeko gauza direlako. Arrakasta hortik datorrela uste dut; jendearen jakeria kontuan hartzeko dela esatetiko.

“Jendearen harrotasuna sustatzen ahalegintzen naiz, harro sentitu daitezen lurrari lotutako zerbait dakitelako”

Betiko mundua

Jakoba Errekondo Saltsamendi (1961, Usurbil). Paisajista eta agronomiako ingeniari teknikoa da. “Amona baratzeazina zen eta izekoak ere beti izan du baratzea aldamenen. Aitak, bestalde, fruta-arbolak gustuko ditu eta txertatzailea da; gainera, egurrekin egiten du lan: basotik enborrak ekarri, zerratu... Hori, ba, nire betiko mundua izan da”.

Ospe handia du baratzeazintzan

eta lorezaintzan eta askok berarengana jotzen dute aholku bila. Zenbait komunikabidetan kolaboratzen du eta www.bizibaratzea.eus webgunea ere badu. Hitzaldiak eta ikastaroak emateaz gainera, azoketan hartzen du parte eta liburuak ere idazten ditu. Bere azken lana *Etxeko landareak* da: iazko urrian kaleratu zuen eta jadanik bigarren edizioa egin da. Gaur egun, ahal duen neurrian, buru-belarri dabil liburua han eta hemen aurkeztzen.

“Diseinatzeaz gainera, etika profesionala eduki behar da”

t: Itxaso Marina Ondarroa

PEIO RICA | moda-ikaslea

Berari buruzko informazio bila genbiltzala, gazteak esandako hurrengo hitz hauek topatu ditugu aipatutako ikastetxearen gizarte-sare batean: “Herriko arraroa izan naiz beti; hortaz, egun batean erabaki nuen nire bitxitasunetatik bizi izaten saiatzea”. Hitzek bidea eman digute solasaldia hasteko. “Herri txiki batean bitxia edo ezberdina izatea zaila da. Ni bitxia naiz, alde batetik, janzkeragatik, eta beste aldetik, ez zaidalako gustatzen beti talde herts berean egotea, taldearen liderrari edo irizpide nagusiarri jarraituta; eta horrela izateak ateak ixten dizkizu. Nahiko txarto pasatu nuen txikitan, eskolan zein institutuan, harik eta Ibarrekolanda institutura aldatu nintzen arte, batxilergo artistikoa ikastera. Atseginagoa izan zen han ikastea, eta libre sentitu nintzen”.

Txiki-txikitatik izan du modarako grina, eta familiaren babesa. “Amak dio hiru urteko umea izanda hasi nintzela andereño baten janzkeraz ohartzeko; antza, asko gustatzen zitzaidan nola janzten zuen. Amak ere arropa-denda zuten eta jantziak Parisetik ekartzen zituzten; amametako batak josi ere egiten zuen... Beraz, esan liteke modarako zaletasuna odoletan daramadala”. Hori dela eta, iaz gradu bikoitza hasi zuen. “Estilismoa eta moda diseinua ikasten nabil, baita estapanatuak eta ehunak diseinatzen ere. Marrazteko hainbat teknika ikasten ditugu, figurinak egiten, josten, patroiak egiten, estilismoak... Datozen tendentziei ere erreparatu behar diegu, eta bolumenak kontuan hartuta kontraste egokiak sortu, *look*-ak hobetzeko”.

Bere estiloari dagokionez, nahiko eklektikoa dela esan digu. “Edozein arropa edo zapatak hartu, emakumezkoenak zein gizonezkoenak, eta nire estilora ekartzen

Peio Rica 21 urteko lezamarra da, eta modaren zale amorratua. Gaur egun, Inedi ikastetxean dabil ikasten eta inoiz modatik bizi ahal izatea du amets. Modarako grina, iritziak eta helburuak partekatu ditu gurekin hurrengo lerroetan.



“Edozein arropa edo zapatak hartu, emakumezkoenak zein gizonezkoenak, eta nire estilora ekartzen ditut”

ditu. Halaber, bigarren eskuko arropa eta jantzi *vintage*-ak erosten ditut". Bere jantze-ko erak bilakaera izan du urteen poderioz. "Egia esan, nahiz eta ez lortu, lehen saiatzen nintzen ez nabarmentzen; orain, berriaz, ez dut ezta saiatu beharrik ere; berdin ditur besteek niri buruz zer pentsatzen duten". Aitortu digu jantzeko orduan ez diela tendentzietan jaramon handirik egiten. "Duela 50 urteko arropa ere jantzi dezaket lasai asko. Armairuan klasiko asko ditut, aurten nahiz datorren urtean eramateko aproposak. Aldarteak ere eragina du nire arropan, baina kontrako zentzuan: apur bat goibel banago, zerbait ausartagoa jantzen dut".

Grisak

Buruan hainbat ideia ditu eta diseinatzeko hasi da. "Hala ere, hirugarren urratsean hasiko gara bildumak-eta egiten, eta gradu amaierako lanerako ere bilduma sortu beharko dugu. Diseinatzailea edo estilista izan nahiko nuke; patroiak egitea, ordea, ez zait batere gustatzen". Diseinatzaileengan baino, sormen-zuzendariengan ipintzen du arreta. "Markaren estetika eta filosofia erabakitzen dituzte. Izan ere, diseinatzeaz gainera, diseinuaren inguruan dagoena

ere hartu behar da kontuan, eta etika profesionala eduki. Nire ustez, prozesu osoa hausnartu behar da, esaterako, arropa nolako lan-baldintzetan egiten den nahiz ingurumenari ekartzen diogun kaltea. *Fast food*-a izango balitz bezala kontsumitzen dugu arropa, eta kontuan hartu behar da moda gehien kutsatzen duen bigarren industria dela. Metro bat kotoi egiteko, adibidez, 10.000 litro ur behar dira. Sormen-zuzendari ibili ahal izanez gero, gustatuko litzaidake irizpide jasangarriak eta justuak ezartzea; azken batean, mundua hobetzea da, ezta?".

Lezamarraren ustez, Txorierrin eta Bilbon ez dugu txarto jantzen, baina nahiko gatzgabeak gara. "Grisak gara arropa jantzeko orduan. Nolanahi ere, hori autoen kolorearekin ere gertatzen da: auto bel-

"Jende askok deigarriak izateari beldur dio eta horregatik ez du nahiko lukeen arropa erabiltzen; ez gara ausartak"



tzak ikusten dira normalean, zuriak, grisak, urdinak... eta bat-batean auto gorri bat ikusten dugunean, atentzioa ematen digu. Jende askok deigarriak izateari beldur dio eta horregatik ez du nahiko lukeen arropa erabiltzen; ez gara ausartak".

Gazteari gustatuko litzaioteko modatik bizi ahal izatea, berdin dio zein esparrutan, eta argi du horretarako Estatuko beste hiri batera joan beharko lukeela. "Esate baterako, bidera ezina da Bilbon marka transgresorea sortzea, gehienek ez baitute bertan erosiko. Madrilera edo Bartzelonara alde egitea gustatuko litzaidake; behar dut". Ametsak egia bihurtzen dira askotan.



POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Laridele Heziketa eta Bigarren Heziketarako Ikastetxea

Uztzagale Kalea, 1 | 48160 - DEBEO | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierr.net
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierr.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATE IREKIAK
Apirilak 20 eta 29
Maiatzak 25, 26 eta 27

Eman izena webgunean:
www.txorierr.net

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriarako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

40 urte, milaka txori

Logoak: EUSKO JAURLARITZA, GOBIERNO VASCO, Premia Guadalupe, AEMOR, ikastolenburua, HETEL, Eusko Jaurlaritzaren Informatika

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B | 48150 SONDIKA | 634 410 470
aузokidefincas@gmail.com

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txorierrin etorbidea, 9-4 | 413. bulegoa | 48160 Debeo | Telefonoa eta faxa: 94 454 44 08 | l.amondarain@txorierr.net

Gizarte Zerbitzuak indartuko ditu Mankomunitateak eta enpleguaren alde egingo du

2021eko aurrekontua onartu du Txorierriko Mankomunitateak. Bizi dugun egoerari erantzunez lehentasun batzuk ezarri ditu: gazteen enplegua sustatzea eta gizarte zerbitzuak hobetzea.

2020ko abenduaren 28an zortzi milioi eurotik gorako aurrekontua onartu zuten Mankomunitateak. Eutsi egingo zaio iazko kopuruari, izan ere, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 0,05 baino ez da jaitsi aurrekontua.

Aurrekontu horretan "Txorierriko Udal Euskalategia" erakunde autonomoaren eta "Egaz Txorierrri" sozietate publikoaren aurrekontuak ere jasotzen dira. Txorierriko Udal Euskalategiaren aurrekontuak apur bat egingo du gora: % 3,31; Egaz Txorierrri, berriz, % 5,98ko igoera izango du.

Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko udalek osatzen duten Mankomunitateak lehentasun batzuk ezarri ditu 2021eko ekitaldi honetarako:

Gizarte-zerbitzuak

Azken aspaldi honetan bereziki hain beharrezkoak diren **Gizarte-zerbitzuak hobetu** nahi dira. Aurten, gizarte zerbitzuetako unitate buru bat hasiko da lanean; horrela, Mankomunitateko langile tekniko kualifikatu enplegatu berrantolatuko da.

Mankomunitatearen egoitzan egokitzeko lanak egingo dira, gizarte-zerbitzuen eskaerari erantzuteko, zerbitzu horien erabilgarritasunari eta profesionalen arreta emateko ingurunea hobetzeko eta langile berrak hartzeko.

Zerbitzu batzuk hobetuko dira: Eskuhartze Psikosozialeko Zerbitzuak 25.000 euroko hazkundea izango du; Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak 20.000 euroko igoera izango du eta Laguntza Tekniko Bankuak, berriz, 4.000 eurokoa.

Enplegua

Enplegua sustatzen jarraituko da zeharkako ikuspegi global batetik; bereziki **gazteen prestakuntza eta lana** bultzatu nahi dira. Horretarako, Txorierriko **Enplegu eta Gazteria Plana** garatuko da.



Egaz Txorierrri sozietate publikoari 270.000 euroko ekarpena egingo zaio, enplegua delako Txorierriko herritarren lehentasun nagusienetako bat. Horregatik, Mankomunitateak beharizan horri erantzun nahi dio, kalitatezko eta lehen mailako enplegu-zerbitzu baten alde eginez.

Euskara

Euskararen erabilera eta ikaskuntza sustatzen jarraitzea da beste helburuetako bat. Horrez gain, aurten, Txorierriko herrietan euskararen erabilera aztertuko

da, kale-neurketa baten bidez. Aurrera begira, datu horiek oso erabilgarriak gertatuko zaizkio euskara zerbitzuari ekintza zehatzak abiatzeko.

Hainbat ildo

Horiez gain, aurten ere, ohiko ildoei eutsiko zaie. Esaterako, Mendekotasunei aurre egiteko eta Osasuna sustatzeko planari. Arreta berezia jarriko zaio prebentzioari, balioetan heztea, prestakuntzari eta orientazioari. Genero berdintasunaren aldeko lanari ere segida emango zaio.



2021: Erabilera bakarreko plastikozko produktuak debekatuta

Itsasoan agertzen diren plastikozko hondakin gehienak erabilera bakarreko hondakinak dira.

Plastikoen deskonposizioa hain motelaenez hondartzetan eta itsasoetan metatzen dira. Plastikoa dortokek, baleek, fokek eta hegaztiak ahoratzen dute, baita arrainek eta itsaskiek ere, eta, ondorioz, gure plateretarraino heltzen da.

Europar Batasunak hiru helburu ezarri zituen erabilera bakarreko plastikozko produktu batzuei dagokienez: plastikoen ingurumenean duten inpaktua prebenitu eta murriztu behar da, bereziki ingurune

urtarrean eta gizakien osasunean, eta ekonomia zirkularerako trantsizioa sustatu behar da.

Horregatik, 2021eko uztailaren 3tik aurrera debekatuta egongo da erabilera bakarreko plastikozko produktu hauek merkaturatzea:

1. Zotz kotoidunak
2. Mahai-tresnak (sardexkak, aiztoak, koilarak)
3. Platerak
4. Lastoak
5. Edari-irabiagailuak
6. Puxikei eusteko eta haiei lotuta er-

mateko makilatxoak

7. Elikagaietarako ontziak, poliestireno hedatuz eginak, hala nola estalkidun edo estalkirik gabeko kutxak, berehala kontsumitzeko, in situ edo eramateko erabiltzen direnak, ontzian bertan kontsumitzen direnak eta ondoren prestatu gabe kontsumitzeko prest daudenak. Janari lasterretarako edo berehala kontsumitzeko erabiltzen diren elikagaietarako ontziak barne, honako hauek izan ezik: edarietarako ontziak, platerak eta elikagaiak dauzkaten ontziak eta bilgarriak.

8. Poliestireno hedatuz egindako edarietarako ontziak eta edalontziak, horien tapak eta tapoiak barne.

Plastikoen ordezko materialak bilatzea da kontua, eta, beraz, litekeena da zure erosketa-puntuetan honelakoak ikusi izana: paperezko eta banbuzko lastoak, jangariak, baita altzairu herdoilgaitzezkoak ere, azukre-kanaberazko edo palma-hostozko platerak, banbuzko zotzak eta abar.

Gainera, erabilera bakarreko plastikozko edarien ontziak merkaturatu ahal izateko haien tapek eta tapoiek horiei lotuta egon beharko dute. Plastikozko zigiluak dituzten metalezko tapa eta tapoiak ez dira plastikozkotzat hartuko.

Debeku horrek plastiko oxodegradagarri egindako produktuak ere barne hartzen ditu (plastiko oxodegradagarriak material plastikoak dira, eta gehigarrien bidez material plastikoak mikrozatietan zatitzea edo deskonposizio kimikoa eragiten dute).

Gainera, 2025etik aurrera, edarietarako erabilera bakarreko plastikozko PET botilek, gutxienez % 25ean, birziklatutako plastikoak izan beharko dute, eta 2030. urtean % 30ean.

Era berean, fabrikatzaileek produktu batzuek ingurumenean duten eraginari buruzko oharra jaso beharko dituzte nahitaez etiketan: konpresak, tanpoi higienikoak, tanpoi-aplikatzaileak, eskuoihal hezeak, plastikozko iragazkiak dituzten tabako-produktuak eta edarietarako edalontziak.



Pazientzia handiko lana

Azken garaiotan Derioko hilerri ondotik ibili bazarete, Bilboko "Vista Alegre" hilerri ondotik hain zuzen ere, gazte talde bat ikusiko zenuten hormari itsatsita luzaro. Oso astiro dabilta, mimo eta pazientzia handiz. Beraiengana hurbildu gara gehiago jakin nahian. Bost gazte dira, June, Isa (Isabel), Ainara, Irantzu eta Borja, denak Bilboko bizilagunak (derrigorrezkoa ei zen lanerako, nahiz eta Isa Murziakoa izan jaiotzez).



t/a: Jose Angel Mentxaka



Bilboko Udalak kontratatu ditu kanposantu honetan zaharberitze lanak egiteko. "Kontserbazio egoera txarrean dagoena zaharberitzeko, ahalik eta denbora gehien iraun dezan". Orain hilerria inguratzen duen horman dabilta; panteoietan ere ibiliak dira, zeren interes kulturala dute eta zaindu behar dira. Abenduan hasi ziren eta ekainera arte egongo dira oraingoz, gero... nahiago lukete, baina ez dakite. Goizez dabilta, zazpi orduko lanaldian. Beste urteetan ere ibili dira; lan hau ez da amaitzen, beti dago zer zaharberitu.

Kontatu digutenez, arazo nagusia harria dago: gehiena hareharria da eta nahiko egoera txarrean dago. "Kontuan eduki behar da hemen euri asko egiten duela, kutsadura dagoela, abioiak gainetik pasatzen direla, kanpoko hormaren ondoan trenak eta autoak dabiltzala gelditu gabe: horrek denak asko kaltetzen du harria".

Eta zer egin konpontzeko? Baten batek ura presioan botatzea esango luke, baina ez da hain erraza. "Lehenago, er-tzetan dauden belar eta landareak kentzen ditugu, eskuz; gero harria ez diren partikulak, zikinkeria, tentu handiz kentzeko. Ostean harria busti egiten da, horrela bigundu, poroak zabaldu eta eskuila

"Euri asko egiten du, kutsadura dago, abioiak, trenak, autoak: horrek denak asko kaltetzen du harria".

batzuekin igurtziz zikinkeria atera egiten dugu; ondoren, biozida ematen da ondoak hiltzeko. Gero berriro ura eta garbitu. Desegiten ari bada, kontsolidatzailea ematen diogu. Ondo gelditzeko, eta gehiago irauteko, hidrofugante ere eman beharko litzaioke, baina hori ez dugu".

Eurak Leioako Arte Ederretan ikasitakoak dira: bata lizentziatua, Kontserbazio eta Zaharberritze espezialitatean, eta besteek maila bereko gradua dute. Lizentziatua kexu da orain gradukoei aukera gehiago ematen dietela eta.

Lan jarraitua

Batuzentzat hau lehen lana da, baina beste batuzentzat ez. Isak kontatu digu Sabino Arana Fundazioan ibili dela bi urte lanean, kontserbazio lanak egiten. Han, paperezko dokumentuak, argazki digitalizazio asko, formatu txikiko objektuak, pegatinak... denetarik izan ditu. "Bixikeria moduan, preso batek kartzelan idatzitako antzerki obra bat izan genuen, komuneko paperean idatzita. Beste alde batetik, eskultura erlijiosoak zaharberritzen ibilia naiz: mihiseren bat, doratuak... Elizetako obrak. Beharbada Murtziakoa

naizelako, eta han Aste Santuko prozesio asko dagoenez (kar, kar)"

Borja bere aldetik enpresa pribatua ibilia da, fatxadak zaharberritzen, eta Junerekin batera orain arte ere hilerri honetan lanean ibilitakoa da panteoiak zaharberritzen, Recaredorena, Doña Casildarena, zirkuan hil ziren umeena. Beheko kriptan, bi soldaduen estatueta (memoria historikoaren legea dela-eta kendu egin dituztenak)".

Pazientzia guztiz dabilta eta, esan digutenez, lana ezin da gelditu. Urtero dago lana, eta egongo da, harriak asko sufritzen duelako hemen eta iaz egindako lan batzuk ere errepassoa behar dutelako jadanik. Mantenu lan hau jarraitua izan behar da.

*Urtero dago lana:
harriak asko sufritzen
du eta iaz egindako lan
batzuk ere errepassoa
behar dute*



TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIK
EGOITZEAN**
egunean
gauen
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

“Funtsezkoak izanik, kontraes bizirauteko borrokan ibili beha

IRENE DIAZ ABELLAN | kazetaria

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Iñaki Eguino

Hasiera-hasieratik izan zenuen argi telebistan lan egin nahi zenuela?

Ez horixe! Txiki-txikitatik banekien kazetaria izan nahi nuela, eta urte askoan gerra-korrespontsala izan nahi nuen; ziur asko, ez nekielako lan hori zein gogorra den. Karreraren lehen urratsean nengoe-la hasi nintzen Barakaldoko irratia batean lanean, zeren eta beti uste izan baitut kalean ikasgelan baino gehiago ikasten dela; gauza biak uztartu nahi nituen. Ondoren, karreraren bigarren urratsean, Telebilbaon eta Radio Nervionen praktikak egiteko aukera etorri zitzaidan eta ia 28 urtetik hona nire bigarren familia dira.

“Beti uste izan dut kalean ikasgelan baino gehiago ikasten dela”

Albistegian hasi zinen eta hor jarraitzen duzu.

Gainera, gehien gustatzen zaidana da. Irratian ere kirol-ataleko lankideei laguntzen ibili nintzen, baina Ametzolako instalazioetara joan zirenean, telebistan eta albistegietan zentratu nintzen. Zerbait urtetan albistegiaren erredaktorea izan ondoren, hura zuzentzeko aukera eman zidaten eta urte batzuetan aurkeztu ere aurkeztu nuen. Ostean, berriro hasi nintzen bakarrik albistegia zuzentzen, eta duela urte batzuetatik hona, berriro aurkeztu.

Nola baloratzen duzu urte hauetan albistegian egindako lana?

Oraindik badut gauza asko eta asko ikasteko... Ogibidearen alde polita da egunero ikasten dela: ez dakizu egunak zer ekarriko dizun eta, jende berria ezagutzeaz gainera, pertsonen eta taldeen aukera eman ahal diezu haien istorioa kontatu dezaten. Esaten dudana ez irakurtzeko joera hartu dut orain; arraroa da, baina segurago sentitzen naiz, berriak istorioak balira bezala kontatzen badut. Hori arrisku-

Sondikoztarra *Diario Local* albistegiko zuzendaria eta aurkezlea da Telebilbaon, eta *La Tribuna* elkarrizketa-saioa ere aurkeztu du bertan. Bere lan-ibilbidea ezagutzeaz gainera, tokiko kazetaritza izan dugu hizpide kazetariarekin.



tsua izan daiteke, hitzen bat ahaztuz gero, aurrera jarraitzea kostatzen delako (kar-kar). Beste aldetik, esperientziaren bidez pertsona asko ezagutzea lortzen da eta haiengana jotzea albisteei itxura emateko.

“Ogibidearen alde polita da egunero ikasten dela: ez dakizu egunak zer ekarriko dizun”

Albistegia aurkeztetik zer gustatzen zaizu gehien? Eta gutxien?

Albiste onak ematea gustatzen zait, gaur egun haien hutsunea igartzeko dugun arren. Batzuetan albiste bihurtzen ez bada ere, hurrengo honek ere motibatzen nau:

batzuetan istorio gogorra duten pertsonen deitzen digute eta horiei laguntzen saiatzen gara, zer egin ahal duten jakinarazita. Eta gutxien gustatzen zaidana da, momentu honetan, egunero koronabirusari buruzko datuak eman behar izatea.

Zaila da zeuk zure burua zuzentzea?

Ez dut horretan inoiz pentsatu; beti pentsatu izan dut, lantalde txikia bagara ere, oso ondo aritzen garela, aspalditik ezagutzen baitugu elkar. Gauzak hobeto egiteko, ordu gehiago izatea gustatuko litzaidake, baina gure baliabideak kontuan hartuta –hiru berriemaiile eta hiru kamerari–, esan ohi dugu “mirari-albistegia” egiten dugula. Aita dut kritikari nagusia; zuzentzen nauena bera delakoan nago (kar-kar).

Nola egiten zaio aurre presioari tokiko telebista batean?

Zintzotasun osoz esango dizuet, zo-

ana da r izatea”

“Gure baliabideak kontuan hartuta, esan ohi dugu «mirari-albistegia» egiten dugula”

rionez, zuzendariak gure lanean konfiantza duela eta ez didala inoiz esan albistegian zein ordenari jarraitu behar diodan. Beharbada, kaleko jendeak egindako galdera gehiago ipintzeko esan dit batzuetan, edo kontratatutako ekitaldien gaineko erreportajea egiteko; baina besterik ez.

Zerbaitekin ados egon ezean, nola kontatzen da hori?

Esaten dugu; ez dago beste erremediorik, objektiboak izan behar dugu eta. Esaterako, guk atletismo-kluba dugu Txorierrin eta ez nago ados eskola-kirola bertan behera uztearekin; bada, alde biak kontatu behar izan ditut: eskola-kirola egiten uztearen aldekoena eta hura bertan behera uztea egokiena dela pentsatzen dutenena. Albisteekin berdin gertatzen da: bizitzan oso gauza onak eta oso gauza gogorrak daude eta guztiak kontatu behar dira.

“Bizitzan oso gauza onak eta oso gauza gogorrak daude eta guztiak kontatu behar dira”

La Tribuna saiora hainbat pertsonaia eramaten dituzu –idazleak, abeslariak, kirolariak...– eta gizarte-gaiak ere lantzen dituzu. Nola sortu zen programa aurkezteko aukera?

Telebilbaoko ateak ireki zizkidan pertsona berak eman zidan aukera: Virginia Perez. Nire zuzendaria izan zen albistegian –ondoren, Joseba Solozabal– eta, era berean, *La Tribuna* aurkezten zuen. Politikariak elkarrizketatzen zituen programan, eta denboraldi batean elkarrekin egin



genuen. Baina beste herri batera joan zen bizitzera, eta bakarrik utzi ninduen. Ez zitzaidan asko gustatzen, norbait elkarrizketatu behar izateak urduritzen ninduen eta; hala ere, denboraren poderioz, nire une kutuna bihurtu da: imajinatzeko aukera ematen dit, izan ere, ez dira ohiko elkarrizketak, gonbidatua aho zabalik zuteko asmoa dute eta.

Zein pertsonaia duzu bereziki go-goan? Baten batek esan dizu ezetz?

Nahiz eta oso audio hunkigarria bidali, Jordi Evolek ez dit ezta erantzun ere egin; antza, ez zitzaion gustatu (kar-kar). Asko ditut gogoan, batez ere kulturari lotutako pertsonak, gaur egun gehienbat arlo hori lantzen dut eta. Atzera egin, eta Xabier Arzallus berriro elkarrizketatzea gustatuko litzaiguke, harreman berezia baikenuen; baita Iñaki Azkuna ere, gaur egungo Bilbori buruz nolako iritzia duen galdetzeko; nire idazle kutunak dira Dolores Redondo, Mikel Santiago eta Ibon Martín, beren lanagatik eta izaeragatik; Carlos Ruiz Zafón oso umila zen eta bihotzean betiko izango dut; Pablo Carbonelli negarra eragin nion eta uste dut maite nauen bezainbeste gorrotatzen nauela; Cesar Brandon poetaren sentikortasunak liluratzen nau...; begira, Marwanen atzetik ere banabil, baina ez dago zer eginik... Eta, amets egin ahal dudanez, Kamala Harris Estatu Batuetako presidenteordea elkarrizketatzea gustatuko litzaidake; Arturo Perez Reverte ere nahien zerrendan dut.

Joseba Solozabal aipatu duzu lehen, lanbidean zure aitabitxia izan zen, ezta?

Bai, berak eman zidan Aste Nagusiari buruzko saio bat aurkezteko aukera. Ondoren, nagusi izan nuen albistegietan, eta erreferente, lanbidean. Maila pertsonalean ere oso harreman estua dugu. Orokorean, oso harreman ona dago telebistako eta irratiko langileen artean: Emiliok eta Angelek, egitasmoa martxan ipini zute-

nek, familia handi batean pentsatu zuten, eta hor gaude, garai onetan eta txarretan.

Aukeratzekotan, La Tribuna ala Diario Local?

La Tribuna, zalantza barik. Nolanahi ere, egin nahi dudan guztia gauzatu ahal izateko baliabide gehiago izatea gustatuko litzaidake; zaila da, babeslea beharko nukeelako eta orain arte ez dut lortu.

Nola egiten da lan telebista txiki batean?

Albistegian sei lagun gaude, baina kamerariek iragarkiak egin behar badituzte,

edo Lezamara joan, gutxiago gara. Estudiora heldu, gaiak bilatu, gure artean banatu, grabatzera joan, itzuli, gidoia egin, editatu eta aurkeztu. Horrela esanda azkar egiten dela dirudien arren, denbora behar da. Denetarik egiten dugu: beharrezkoa izanez gero, kazetariak grabatu ere egiten du eta aurkezleak, esan behar duena idazteaz gainera, editatzen du. Neurri batean ona da denetarik egitea. Publizitatetik bizi gara eta oso une latzak dira. Pandemiak osasun-krisia ez zik ekonomia-krisia ere ekarri du, eta ikusiko dugu berreskuratzea



"Egitasmoa martxan ipini zutenek familia handi batean pentsatu zuten, eta hor gaude, garai onetan eta txarretan"

zein kostatzen den gehien.

Komunikabide handien aldean, badu abantailarik tokiko komunikabide batean lan egiteak?

Ez dut inoiz komunikabide handi batean lan egin. Batzuetan pentsatzen dut horrelako batean lan egitea gustatuko litzaidakeela, esperientzia moduan, baina uste dut nagoen tokian egoteak askatasun handiagoa ematen didala.

“Tokiko telebistan egoteak askatasun handiagoa ematen dit”

Tokiko komunikabideen lana eta komunikabide handien lana berdindarazten dira?

Bere garaian, bide korapilatsua hasi genuen eta ez zegoen tokiko komunikabideek etorkizunean bizirauteko itxaropen handirik; ogibideko lankideen artean ere ez. Baina hemen gaude eta jarraitzen digun jendearen babesa ere badugu. Nola



César Brandon poetarekin eta Iñaki Williams futbolariarekin

baloratzen gaituzten? Bada, denetarik egongo da: komunikabide handien baliabideak ez ditugula dakitenak zein gehiago eskatzen dutenak. Guk, adibidez, ezin dugu ikertze-lanik egin, ez baitugu baliabide eta langile nahikorik, baina gatazka dagoenean bertsio guztiak plazaratzen ahalegintzen gara; nire iritziz, gakoak da

ateak ez ixtea.

Krisi-garaian txikiak dira lehenak ondorioak jasaten. Nola egin diezue aurre azken urteetako krisiei?

Une korapilatsuak bizi izan ditugu Grupo Nerviónen; hala ere, beti lortu dugu aurrera egitea. Badirudi pandemiak eragindako krisia latzagoa izango dela, baina

Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN DEIALDIAK-2021

A1 eta A2 mailak egiaztatzeko, ebaluazio-jarraituaren bidez.

B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko, bi deialdi (euskaltegian egon behar da matrikulatuta):

-2021-04-6 / 2021-04-15 (biak barne).

-2021-09-9 / 2021-09-15 (biak barne).

ADI !! matrikulatzeko epea: 2021eko apirilaren 6tik 14ra

DEIALDI IREKIAK-2021

B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko matrikulazio epeak (ez da euskaltegian matrikulatuta egon behar):

-2021-04-6 / 2021-04-15 (biak barne).

-2021-09-9 / 2021-09-15 (biak barne).

HOBE 2021 (ORDENAGAILUEN BIDEZ)

-Lehen azterketaldian: C1 eta C2

-Bigarren azterketaldian: B1, B2, C1 eta C2 egiaztatu ahal izango dira.

Matrikulazio epeak:

-2021-03-9 / 2021-03-16 (biak barne).

-2021-09-1 / 2021-09-8 (biak barne).

(*)Plaza kopuru mugatua dago.

INFORMAZIO GEHIAGO: habe.euskadi.eus

ez dugu amorerik emango. Kulturari edo ostalaritzari lotutako beste sektore batzuk bezala, funtsezkoak gara eta kontraesana da bizirauteko borrokan ibili behar izatea. Nire ustez, gaixotasuna osatzen duen botika dago, eta arima osatzen duena; biak dira garrantzitsuak.

Zelan eragiten ari da COVID-19a zure lanean?

Kontrako sentimenduen garaia da. Ez gara egun batean ere geldirik egon. Erabateko konfinamenduaren lehen etapa gogorra izan zen: argi genuen ikusleen eta kanpoaldearen arteko lotura gine-la eta kanpoaldea ziurgabetasunez eta berri nahasiz zegoela. Tokiko albistegiaz gainera, Eusko Jaurlaritzari eta Espainia-ko Gobernuari galdetzeko kazetari-talde bitan geunden, eta, era berean, bagene-kien etxean zeudenentzat gogorra eta



Irene Eva García Sáenz de Urturi idazlearekin

Ametsei jarraituz

Irene Diaz Abellan (Barakaldo, 1974). Kazetaritza bokazioz ikasi zuen. "Betidanik gustatu zait ogibidea. Esan zidaten ez nuela lan-irteerarik izango, baina ametsa egia bihurtzea erabaki nuen. EHU-n ikasi nuen eta bertan ezagutu nuen senarra. Kazetari bi gara etxean (kar-kar)". Duela 28 urte hasi zen Telebilbaon lanean, eta aurretik Radio 90n eta La Gaceta de Barakaldon ibili zen.

Sondikan ia hamarkada bi daramatza. "Leku lasai baten bila genbiltzan eta topatu genuen. Bertan hasiera-hasieratik pozik gaude, erabat bertakotuta. Ask

gustatzen zaizkigu Sondika eta Txorie-ri, eta txorierritarrak. Harreman berezia dugu Loiuarekin eta, horregatik, atletismo-taldeari Beste Bira Loiu ipini genion izena; Deriorekin ere harremana dugu, egitasmoa zabaltzeko aukera eman zigutelako. Atletismo-taldeak familia asko ezagutzea ahalbidetu digu, eta umee-kin lan egitea. Beraz, zoriontsuak gara hemen". Kazetariak lerro hauek aprobe-xtatu ditu gazteei hurrengo mezu hau helarazteko: "Ez utzi inoiz amets egiteari; gehien gustatzen zaizun horretan lan egiten saiatu, eta ekinaren ekinez lortu-ko duzue, zalantzarik ez izan".



Sonakay taldearekin

neketsua zela une orotan koronabirusari buruz entzutea; egoeratik aldentzeko beharra zegoen. Telebilbaon ahalegina egin genuen kultura babesteko eta, BBK-rekin batera, zerbait berria egin genuen: publikorik gabeko zuzeneko kontzertuak; eta egoera txarra izanda ere, esperien-tzia polita izan zen. Albisteei dagokienez, hainbat etapa izan dira: Diario Local albistegiak 30 minutu irauten du eta minutu horietan 30-40 tokiko albiste kontatu ohi dugu; beraz, egun batzuk zailak izan dira. Batzuetan badirudi mihise zuri bat margotzen hasiko zarela eta egunero margotze-ko betebeharra duzula.

Nola daramatzazu kritikak?

Hobetzen laguntzen didaten kritika-tzat hartzen ditut; uste dut kritika bakar bati erantzun diodala, eta begirunez, eh! Egia esan, hurbilekoek jasotako kritikak mingarriagoak izan dira.

Zein erronkari heltzea gustatuko litzaizuke?

Tokiko politikan aritu nahiko nuke. Eginkizun garrantzitsua da, zaila, baina funtsezkoa. Ez dakit ondo egingo nukeen; alabaina, ziur egon hurbila eta zintzoa izaten ahaleginduko nintzatekeela.

"Tokiko politikan aritu nahiko nuke. Eginkizun garrantzitsua da, zaila, baina funtsezkoa"

Komunitatean parte hartzea giltzarria da

Emausek ibilbide luzea du Bizkaian, izan ere, duela 50 urte, 1971n hain zuzen, lehen egoitza- eta lan-zentroa zabaldu zuen Sodupen. Harrezkero, erakundeak hainbat aldaketa eta bilakaera izan ditu, eta 1997an Gamiz-Fikako Harrera eta Laguntza Sozialeko Zentroa bere gain hartu zuen Emaus Gizarte Fundazioak. Zentroan gizartetik kanpo dauden pertsonak artatzen dira.

t: Javier Pradini, zuzendari nagusia

Emaus Gizarte Fundazioak hiru lan-arlo ditu: gizarte-inklusioa, laneratzea eta gizarte-eraldaketa eta -sentsibilizazioa. Horren harira, Gipuzkoan, Bizkaian eta Galizian kudeatzen ditu titulartasun publikoko zazpi egoitza-zentro, babestutako zazpi etxebizitza, gizarte-inklusioko hiru eguneko zentro eta esku-hartzeko sozioedukatiboa eta psikosoziala egiteko zerbitzua. Horrezaz gainera, Lanbiderekin kolaboratzen dugu enplegurako prestakuntzaren arloan, hainbat formula proposatzen ditugu enplegua eskuratzeko eta hori hobetzeko, eta gizarteratze-enpresa bi ditugu ingurumenaren eta hondakinen kudeaketaren esparruetan.

Gamizen Bitartean programa dugu. Hori egoitza-zerbitzua da eta gizartetik kanpo dauden pertsonak gizarteratzea du helburu. Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko zerbitzua da. Bestalde, eta aldundiarekin lankidetzaren harira, azaroan eguneko zentroa zabaldu zen Derion, antzeko gizarte-egoeretan dauden pertsonen arreta emateko.

Bitartean arreta osoko programaren ezaugarrietako eta identitate-ikurreta bat da hezkuntza- zein gizarte-eragileekin egiten duela bat. Horrela, bada, lankidetzaren hitzarmenak sinatu ditu Derioko Nekazaritza Eskolarekin, EHUrekin, bigarren hezkuntzako institutuekin (Tartanga, Orue eskola, San Luis...), Deustuko Unibertsitatearekin, auzolandegiekin (ADSIS, UD Solidarioa, Valenziako Scouts...), BesteBi plataformarekin, komunitateko antzerki-taldearekin, Butroi Bizirik elkartearekin eta Aranzadi Zientzia Elkartearekin, batzuk aipatzearen.

Elkarrengandik ikasi

Emaús Gizarte Fundazioaren pro-



gramen eta zerbitzuen erabiltzaileek komunitatean parte hartzea giltzarria da inklusio-prozesuetan. Izan ere, hari esker lortzen da errealitate ezberdinak ikusgai egitea eta harremanetan ipintzea; bestela, ez lukete elkar ezagutuko eta, ondorioz, ez lukete gizarte-harreman berriak egiteko aukerarik izango. Hori dela eta, kultura, artea, kirola, aisialdia eta hezkuntza agertoki egoki-egokiak dira esperientziak partekatze eta elkarrengandik ikasteko. Era berean, harremanak balio du gizartetik kanpo dauden pertsonen egoeraz jabetzeko eta berarekiko sentikor bihurtzeko;

eta hori epe luzeko prebentzio-neurria ere bada, batez ere gazteei begira.

AIKOR! aldizkaria ere horren adibidea da eta, horregatik, lerro hauek baliatu nahi ditugu irakurleak gonbidatzeko Gamiz-Fikan zein Derion egiten dugun lana ezagutzera.

*Irakurleak gonbidatu
nahi ditugu Gamiz-
Fikan zein Derion egiten
dugun lana ezagutzera*

INES MENIKA**INES JANARIDENDA (LARRABETZU)**

Supermerkatua duela 34 urte zabaldu zuen eta berarekin batera beste lagun bik egiten dute lan bertan. Gaur egun orokorrean lasaiago dabilzan arren, gogora ekarri ditu pandemiaren eta erabateko konfinamenduaren lehenengo egunak. "Oso urduri geunden guztiok. Ilara luzeak egoten ziren dendara sartzeko... Itzela!". COVID-19a prebenitzeko protokoloa zorrotz bete behar izateak eta lagun gehiagok herrian bertan erosteak lan handiagoa ekarri zien, baina era batean edo bestean moldatzen ziren. "Orain ez dugu produkturik falta; hala ere, hasieran komuneko paperik gabe lotu ginen, lixibarik, alkoholik, ur oxigenaturik... gabe. Eroskik lehen astean hirutan ekartzen zigun eskatutakoa, baina orain egunero ekartzen dute produktu freskoa: jogurtak, okela, fruta...".

**MARIA JESUS MARTIN
JOSEBA ZUBIZARRETA**
SONDIGARBI GARBITOKIA (SONDIKA)

Ikuztegiko autozerbitzuaz gainera, Maria Jesusek zerbitzu hauek ere eskaintzen dizkie bezeroei: tindategia (lehorreko garbiketa), lisatzea eta alfonbrak eta arropa jaso eta eramateko zerbitzua. "Logikoa denez, garbiketan arreta handia ipini behar dugu, eta higiena murreraino eraman. Bestalde, egia esan, bezero gehiago dugula igarri dut; hala ere, negozioa duela urte bi zabaldu nuen eta zehatz-mehatz ez dakit handiagotze hori COVID-19aren eragin zuzena den ala negozioak berez hartu beharreko bidea. Nolanahi ere, bezeroek eurek esanda, badakit orain zorrotzagoak direla garbiketarekin, baina, era berean, badakit batzuk etortzen direla zerbitzu erosoa delako, adibidez, laneko arropa garbitzeko edo garbigailurik ez dutelako edo apurtu zaielako. Pentsatu nahi dut COVID-19a noiz edo noiz pasatuko dela eta negozioa ondo joango dela".

ASIER MADARIAGA

ELEKMA ETXETRESNA ELEKTRIKOAK (LOIU)

Loiuko denda orain dela 15 urte ipini zuen martxan eta Santurtzin eta Bilbon ere denda dauka gaur egun. Orotara 10 langile dira. "Erabateko konfinamenduan itxita egon ginen eta bakarrik telefonoz saldu ahal izan genuen; hortaz, salmentek % 70 egin zuten behera. Udan gora egin zuten, baina itxialdi perimetralaren eraginez behera egin dute berriro: % 60". Izan ere, Loiuko dendara Bizkaiko hainbat herritako bezeroak hurbildu ohi dira, Gipuzkoakoak ere bai, eta lerro hauek idaztean ezin dira hurbildu eta horrek zuzeneko eragina du salmentetan. "Santurtziko eta Bilboko dendak egoera hobean daude, herri horietan biztanle gehiago daudelako; hori dela eta, irauten gabiltza... Helburua hori da, ahal arte irautea".



RAUL NEGRETE

AGROJARDIN ASTIKENE (DERIO)

Negozia 2010ean abiatu zuen. Guztira 10 langile dira eta Nekazaritzako eta lorezaintzako makineria saltzen dute; gainera, pandemiaren harira hasi dira makineria ere errentan uzten. Funtsezko zerbitzua eskaintzen die enpresei zein partikularrei. "Iazko martxoan, pandemia hasi zenean, salmenta handi bat bertan behera utzi ziguten eta harrezkero hori izan da joera, ziurgabetasuna eta beldurra daude eta. Bezeroak askoz gehiago pentsatzen du erosketarako orduan. Udalerrien itxiera perimetralaren ondorioz, bezero gutxiago hurbiltzen dira dendara, eta, plusa eskaintzeko asmoz, makineria jaso eta eramateko zerbitzua areagotu dugu: lehen ere eskaintzen genuen, baina orain tresnaren tamaina edozein dela ere ematen dugu. Banekien 2021a 2020a baino txarragoa izango zela, eta etorkizuna ere zalantzarik beteta dator. Orain gehiago egin behar da lan, gutxiago irabazteko".



JOSU RODRIGUEZ**OAKLAND ENGLISH AKADEMIA (ZAMUDIO)**

Akademia 2013an zabaldu zuen eta ingeles eskola 12 urtetik gorako lagunei ematen die. "Lan-karga handiagoa dut orain, akademiara jende asko etortzen denez, etengabe garbitu eta desinfektatu behar ditut mahaia eta aulkiak. Hala ere, zortea dut lokala azkar egurasten delako; gainera, atea beti dut zabalik. Bestalde, aurreko urteetan baino ikasle gutxiago ditut: alde batetik, kutsatzeari beldurragatik izango dela suposatzen dut, baina, beste aldetik, ikasle asko Parke Teknologikoko langileak dira eta hango enpresa gehienak telelanean dabilenez, ez dira akademiara etortzen. Alabaina, beste sektore batzuen egoera ikusita, ezin naiz kexatu: negozioa zabalik eduki ahal dut eta nola edo hala aurrera egin".

**MICHELLE ISIDRO****LOREGARBI GARBIKETAKO ENPRESA (DERIO)**

Enpresa 2004ko azaroan ipini zuen martxan eta gaur egun bost langile dira. Funtsezko zerbitzua eskaintzen dute, besteak beste, enpresetan, bulegoetan eta auzokideen komunitateetan. "Pandemiaren hasieran lan handiagoa izan genuen, enpresa batzuek errefortzu-lana egiteko eskatu zigutelako. Orain pandemia hasi baino lehen bezala gabiltza lanean; salbuespen bakarra da gure bezeroetako bat itxita dagoela eta, hortaz, ez gabiltza instalazio horiek garbitzen. Beste aldetik, garbiketari dagokionez, lehen ere oso zorrotzak ginen lanean eta orain berdin egiten dugu; nolana ere, jakina, orain askoz zorrotzago garbitzen ditugu jendeak ukitzen dituen gainazalak, ateen eskutokiak kasu, eta erabiltzen dituen guneak, hala nola igogailuak eta gune komunak. Halaber, beti erabili ditugu germenak eta birusak hiltzeko garbiketaproduktuak".

ARANTZA ZARATE

LEZAMA KOOPERATIBA

Aurten 40 urte bete dira kooperatiban lanean hasi zela. Langile bi dira bertan eta erabateko konfinamenduak lan handia ekarri zien. Izan ere, ohiko bezeroez gainera, etxean halabeharrez egonda, jendea animatu zen balkoietan eta lursail txikietan ortutxo-edo ipintzera. "Lanak behera egin du neguan, baina hemendik ekainera arte mugimendua egongo da ortuetan eta horrek eragina du kooperatibaren egunerokotasunean: batzuk fruta-arbolak ipintzen dabilta, beste batzuk lurra ongarritzen... Eta gero, ekainean, landareak ipiniko dituzte". Desinfektatze-lanak egin behar izateak ez die eragozpenik ekarri. "Lehen beste bezero artatzen ditugu orain; mol datzen gara".



JOSU ASTORKIZA

LOTERIA ZAMUDIO

Loteria-administrazioa duela 27 bat urte zabaldu zuen. "Itxita egon ginen birtartean galdutakoa ezin da berreskuratu. Gabonetan arean mugimendu gehiago izan dugu, baina aurreko urteetan baino gutxiago saldu da. Lehen enpresetara joaten ginen dezimoak saltzera; hala ere, COVID-19a dela eta, gu hara joan beharrean, langileak administraziora hurbildu dira eta, hortaz, ilarak izan ditugu, baina saldu, gutxiago saldu da. Administrazioa banan-banan sartzen dira bezeroak eta dena motelago doa... Baina, bueno, lokala gurea da eta lasaiago egin ahal dugu aurrera, esaterako, ez dugulako alokairurik ordaindu behar: asko edo gutxi irabazita, guretat da".

Eskolara pandemia-garaian

Jaiotza-tasak beheranzko joera du Euskadin. 2019. urtean, esaterako, 15.418 ume jaiotzen ziren gure autonomia erkidegoan; % 4,2 gutxiago, aurreko urtearen aldean. Horrek eragina izan du 2021-2020 ikasturteko matrikulazioetan. Txorierriko herri ikastetxeetan 119 ume berri izango dira datorren ikasturtean.

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: eskolak

Larrabetzuko eskolan 17 umek egin dute matrikula datorren ikasturterako: 16, bi urteko gelan, eta bat, hiru urteko gelan. Deiene Iturregi hango zuzendariak kontatu digunez, aurtengo ikasturtean ere 17 matrikulazio izan dira. "Maila batzuetan ikasgela bi ditugun arren, joera da lerro bakarreko ikastetxea izatea. Beste aldetik, bat edo bi kenduta, erroldan dauden ume gehienak matrikulatzen dira herriko eskolan".

Nahiz eta Haur Hezkuntzako maila batzuetan inoiz, aurten kasu, ikasgela bi egon, Lezamako eskola ere lerro bakarrekoa da. "Hamalau matrikulazio berri izan ditugu, guztiak bi urteko gelan", azaldu digu Amaia Estankona zuzendariak. Zamudion, eta Belen Mellado zuzendariak adierazi duen moduan, datorren ikasturtean 12 ume egongo dira 2 urteko gelan; guztiak, Zamudiokoak.

Derioko eskolan, berriz, 48 matrikula egin dira: 34 ikasle, bi urteko gelan; 10 ikasle berri, hiru urteko gelan; eta beste lau ikasle Lehen Hezkuntzako zenbat mailatan. "Gehienak Deriokoak dira, baina Loiukoak edo laster Deriora bizi izatera etorriko direnak ere badira. Aurtengo datuak eta iazkoak oso antzekoak dira; hala ere, bi urteko gelaren matrikula-kopuruak behera egin du orokorrean; hiru urteko gelaren matrikulazioak, ordez, gora egin du", azaldu digu Iratxe Aiartza zuzendariak.

Alabaina, joera bestelakoa izan da Sondikako eskolan. Hango zuzendariak azaldu digunez, datorren ikasturtean 28 ikasle berri izango dituzte: bi urteko gelan 24 ume hasiko dira, aurtengo ikasturtean baino 10 ume gehiago; enparauko laurak beste maila batzuen artean banatuko dira, hiru urteko eta lau urteko geletan eta Lehen Hezkuntzan, alegia. Gehienak herrikoak diren arren, Loiuko umeak ere badira. "Gurea lerro biko ikastetxea da eta borrokan gabiltza etorkizunean ere horrela izaten jarraitzeko; ez da erraza, azken urteotan batzuk lerro bakarrentz joaten gara eta".



Bi urteko gelan ume gutxiagok izena emateko joera egon arren, Sondikan aurtengo ikasturtean baino 10 ume gehiago matrikulatu dira

Datorren ikasturtean Derioko eskolan hasiko diren umeen gurasoak kezkatuta azaldu dira COVID-19arekin; baita Sondikan hasiko diren gurasoak ere. "Batzuk zalantzan egon ziren seme-alaba eskolan matrikulatu ala ez", esan du Sondikako eskolako zuzendariak. "Gu, gure aldetik, saiatu gara egoera zein den azaltzen,

zein den gure protokoloa, eta adierazi diegu eskolan ondo egongo direla, edo gutxienez beste leku batzuetan bezain ondo". Gainerako ikastetxeetan, oster, ez dituzte bereziki arduratuta sumatu. Nolanahi ere, aipatu beharra dago irakasleak, ikasleak zein gurasoak ahalegin handia egiten dabiltzala ezarritako osasun- eta segurtasun-neurriei eta protokoloiei jarraitzeko. Besteak beste, eta burbuila-taldeen gainera, kontingentzia-plana osatu behar izan dute, sarrerak eta irteerak berantolatuta, patio-orduak, jantokia, komunak, ikasgelak, seinaleak ipini... "Abuztuan hasi ginen lanean eta ikasturtearen hasieran bertigo-sentsazioa izan genuen gerta zitekeenaren aurrean. Ez zen erraza izan, baina irakasleen ahaleginari eta familien laguntzari esker lortu genuen", esan digu Aiartzak.

Tanta-jarioa

"Lezaman, adibidez, liburutegia eta musika- eta ingeles-gelak bertan behera utzi ditugu eta irakasleak beraiek sartzen dira ikasgeletara. Batez ere patioaren antolaketak dakar lan handia... Egoerara moldatzeak lan handiagoa eta lan-ordu gehiago ekarri dizkigute irakasleoi eta zuzendaritza-taldeari. Beharrianak egon dira eta urrian Hezkuntza Sailak irakasle bat bidali zigun jardunaldi erdian", aipatu du Estankonak. Larrabetzun, bestalde, eta Iturregiren esanetan, aurtengo ikasturtean ez dago goizeko gelarik, "ezin delako bermatu umeak burbuiletan egotea", eta eskolaz kanpoko ekintzak ere bertan behera gelditu dira. "Haur Hezkuntzakoak hasieran ez ziren psikomotrizitate-gelara joaten, baina orain garbitzaileak arratsaldean ez ezik eguerdian ere etortzen dira eta gela garbi egotea bermatu dezakegu. Tailerrak ere egiten ditugu, eta talde-lana; pertsonen arteko tarteari eutsita... Formulak baditugu. Gelak denbora guztian daude aireztatuta eta batzuetan hotza pasatu dute".

"Lan handia egin behar da. Guk nahiko zorrotz jarraitzen diogu kontingentzia-planari, baina gizartean dagoena eskolara etortzen da; hau da, herrian positiboak badaude, eskolan ere egongo dira. Kontuak kontu, egoera kudeatzen gabiltza eta, egia esateko, nahiko gela gutxi izan ditugu itxita, momentu puntaletan eta positibo bakarra egonda. Eskola barruan ez da kutsatzerik egon; kanpotik etorri dira", gehitu du Sondikako eskolako zuzendariak. Egoerari eskura duten baliabideekin egiten diote aurre. "Egin behar da eta egiten dugu. Hori bai, alde guztietatik laguntza handiagoa izatea eskertuko genuke".

Ikastetxe guztietan ahalegin handia egiten dabilta protokoloak ahalik eta zorrotzen betetzeko. Haatik, oso zaila izan da COVID-19a saihestea, eta neurri batean edo bestean kasuak egon dira eskola guztietan. Hala eta guztiz ere, Txorierriko eskolek orokorrean balorazio positiboa egin dute lerro hauek idatzi arte izandako egoerari buruz. Lezaman, esate baterako, irailean izan zuten gela bat itxita eta handik hona ez dute kasu gehiagorik izan; Derion, ostera, kezkatuta dabilta. "Urrian hasi ginen lehenengo kasuekin. Positi-

*Ikastetxe guztietan
ahalegin handia egiten
dabilta protokoloak
ahalik eta zorrotzen
betetzeko.*



boen tanta-jarioa izan zen eta abenduan kasuek behera egin zuten. Baina bigarren hiruhileko honetan kasuek gora egin dute berriro, eta gaur egun egoera kezka bizi dugu, zifrek berriz ere behera egingo dutelakoan", aipatu du Aiartzak.

Ohiko ekintzak

Larrabetzun 243 ume dituzte; Lezaman, 180; Zamudion, 225; Derion, 565; eta Sondikan, 304. COVID-19a egonda ere, ahal dela, ikastetxeetan saiatu dira ohiko ekintzei eusten eta, formatua goitik behera gaur egungo egoerara egokituta; Olentzero, Agate Deuna eta Inauteriak ospatu dituzte, umeentzat inportantea baita "normaltasun apur bat" izatea. "Horrezaz gainera, Lagatzu herriko euskara elkar-teak antolatutako Zamudio Ezagutu ekintzan hartu dugu parte, eta Zamudioko errekarra hurbildu gara hango ekosistema aztartzera", kontatu digu Melladok. Beste alde batetik, Estankonaren berbetan, umeak oso ondo egokitu dira egoerara. "Txapeldunak dira. Euren jarrera eta erantzukizuna bikaina izan da eta helduoi gauza asko erakutsi dizkigute. Gurasoen-

gandik ere laguntza eta elkartasun handia izan dugu hasieratik". Sondikako zuzendariak ere umeen jarrera azpimarratu du. "Ustekabean harrapatu gaituztela, umeek normaltasun baten barruan sartu dituzte neurri guztiak. Beharbada, eskuak garbitzea da astunena... Gainera, arazoak ekarri ditu, zeren eta, eskuak hainbeste aldiz garbituta, batzuek zauriak izaten baituzte... Baina gainontzean ondo ulertzen dute egoera".

Datorren ikasturtea zientzia-fikzioa da Sondikako zuzendariarentzat eta irakasleentzat. "Guk aurtengo ikasturtea atera behar dugu aurrera, hala nola, eta aurrerago ikusiko dugu zein baldintzatan gauden eta zer egin behar dugun". Nolanahi ere, itxaropentsu dabilta ikastetxe guztietan eta uste dute datorren ikasturtean orokorrean hobeto egongo direla. "Oso positiboak gara. Irakasleentzat eta zuzendaritza-taldearentzat ikasturte zorrotza izaten ari bada ere, gure ahaleginari eta hobetzeri jarrerari esker, guztia kudeatzeko gai izan gara. Ziur gaude datorren ikasturtean erronkaz eta aukeraz betetako eskola-urtea biziko dugula", esan du Aiartzak.

“Lastimagarria izango zan dana ahaztea”

JUAN LUIS GOIKOETXEA ARRIETA ETA UDANE GOIKOETXEA BILBAO

Aita-alabek *Geldoko koplak* liburua plazaratu barri dabe. Horretan, geldoztarren bizimodua eta jakituria jaso dabez eta, besteak beste, kaminoaren gainean egineko koplak, Indalecio Prieto auzoan ezkutatu egotea, eta 1936ko guda ekarri dabez gogora, Zamudio-ko auzoko bizilagunen historia-zati horiek ahaztu ez daitezan.

Liburu polita argitaratu dozue zuek, Juan Luisek eta Udane.

Txukuna da; ederto argitaratua; neurri erosoko letra; zuriune lagungarriak ditua. Azken baten, irakurlea erakartzea da helburua. Horretarako, irudiaren zibilizazioan bizi garanez, *smartphone*aren aroan, ezin ahaztu dogu argidun pantailakaz lehiatu beharrean garala.

Zer dala-eta argitaratu dozue orain, pandemia sasoiari?

Argitaratzea Lagatzu Euskera Alkar-teak bultzatu dau; eurai esker kaleratu dogu. Inongo koplak barik lagundu deuskue Lagatzukoek. Zeozergaitik dira Zamudio-ko euskal bihotza. Taldekideen harrera eta jarrera eskertuz koplak bat jarri dogu liburuan:

GALDARA LARATZEAN
SOLOAN GOLDEA
EUSKARAREN POZETAN
DABILEN TALDEA
AHOBIZI BELARRI
PRESTEN SUKALDEA
AIKO HOR LAGATZUREN
KULTURA-BIDEA.

Orain auzolana berbea modan dago, zeuen liburugintzan be bai?

Baita! “Esker ona zor” da atal baten izenburua. Hogei pertsonatik gora izan ditugu inguruan lankidetzan. Liburuan datoz euren izenak. Merezi daben esker ona erakutsiz jarri deusiegu “Zorra lorra” atsotitza. Izan be, zorra eukitea ardura da-eta; zorra lorra da, zama; arrastaka eroan behar dan enborra da lorra.

Zelan sortu da liburua?

Liburua etorri egin da guregana. Edozelan be, liburua etor daiten, idazleak talaiako txoria legez egon behar dau begira-begira. Esaten da idazlearentzat

inspirazioa alperrik dala, datorrenean lo topetan bazaitu.

Zeintzuk dira liburuko gai nagusiak?

Geldoztarren bizimodua eta jakituria: Kaminoaren gainean egineko koplak; Bitoriano Bolunburu koplaria nor zan; bide barik egoan Geldoetarako kaminoa egitea; Indalecio Prieto auzo horretan ezkutatuta egonik bizia salbetea; sorginek

“Argitaratzea Lagatzuk bultzatu dau eta hogeitortu pertsonatik gora izan ditugu inguruan zetan edo hatan laguntzen”

bizitza sozialean euker eragina; 1936ko guda -oraindik oroimenean gordin-gordin dagoana-, eta Eusebio Maria Azkue, lehen euskaltzainburiaren aita, urteetan Geldon bizi zana.

Geldoko koplak liburua garrantzitsua da. Azaldu zeinkie zein arrazoirengaitik?

Jaso doguna batu ez bagendu, galdu egingo zan. Gure lekukoak, begizko testiguak zenuak dira jadanik, bakar bat be ez da bizi. Lastimagarria izango zan dana ahaztutea: orduan sorginkerian sinisten ebana; koplak sortzaile eta kantari ebilena; auzo-ikastolako 94 urteko andereñoa; koplak buruz ekiezenak; gerra krudela umezaroan jasan eban euskalduna. Behin honezkerok, zorionez, idatzita eta grabautu geratuko da.



Geldoko kaminoa Prietoren eraginari esker egin zala esaten da. Holan da?

Bitoriano Bolunburuk koplen artean badauka bat azaltzen dauana zelan geldoztarren bat Madrilerara joan zan:

Basorik baso solorik solo
joanta dago Madrille
gure (i) euzoan egon bihar deu
mutillen batek abille.

Guk Bizkaiko Foru Agiritegian eskuraturiko dokumentatuetatik dakiguna da kudeaketa guztia Diputazioan egin zala. Eta, hatan be, orduan Diputazioan agintean egozanak Prietoren alderdikoak zirala.

Zein bertso heldu da gugana, eta zeintzuk galdu dira?

Guri Alejandro eta Santiago Etxebarriak kantau deuskuezanak 53 koplak dira: 40 kaminoaz; zazpi Madrilerako bidaiaz; eta lau Indalecio Prietori eta bi Bustamantari eskainiak. Galdu diranak: Paulino Arrituganekori ataratakoak; Atxutiko Leonardari; Ziriaka Barrengotxekori; Ormetzeko Txomineri, eta beste batzuri ataratakoak. Kaminoko koplak hauxe dino Bitorianok:

Hamasei etxe dagoz
barriotxu batian
kaminorik ez dala
legua bat bidian.

Zein erataro gorde dira, paperean ala buruz?

Gugana buruz etorri dira. Santik eta Alek 67 urtean buruz gorderik, 2000.ean guk grabatu geuntsiezan arte. Edozelan be, bidegintzan jardun eben beharginen artean ezagunak ziran, zabal kantau ziran Txorierrin Pedro Urriaga 94 urteko bertso-lariak 2020ko abenduan esan euskunez.

Geldoztarrai esker urten eban bizi-rik Indalecio Prietok 1917an?

Bai! Haolan idatzi eban Indaleciok berak: "Y aquél domingo comenzó la primera de mis expatriaciones forzosas. Salvándome, la hizo posible la hidalguía rústica, la caballerosidad campesina, la lealtad aldeana de varios vascos, moradores del valle de Asúa y de la cordillera de Artea-carra".

Zein interesgarriak Juanita Rementeria-riaren sorginen gaineko kontakizunak!

Gutziz jakingarriak eta benetakoak. Juanita Rementeria da liburu honetako

Rufino Laiseca Oroz	Sozialista
Manuel Carabias Salcedo	Errepublikanoa
Timoteo García López	Sozialista
Ricardo Luzárraga	EAE-ANVkoa
José Camarero	Errepublikanoa
Felipe Merodio	Sozialista
Florencio Grijalba	Errepublikanoa
José Ignacio Arana	EAE-ANVkoa
Luis de Urrengoechea	EAE-ANVkoa
Ramon de Madariaga	Errepublikanoa

ate eta giltza, eskerrik beroenak merezi dituana.

Natxitube'tar Miren andereño egon zan Geldoetan, ezta?


Bai, Mirenegaz egin genduan alkarrizketa polit-polita da; dokumentu erabat gustagarria. Gainera, beti aitatzen eban Lauaxeta: "Lauaxeta eta biok lagun handiak ginan. "Juventud Vasca"n domeka batzue-tan alkarregaz egon eta berba egiten genduan. Euskeraz beti eh! Bai, lagun handiak ginan, handiak!"

1936ko gudaz zer dinoe liburuan geldoztarrek?

Gorabehera jakingarri asko, gogor eta mingarriak, ia sinistezinak: "Eta gero soldaduek: Hay que salir de aquí, os van a matar!". Baina urten gura ez ba, ganadua handia-eta. Urrutiak esaten euskun: "Inora be ez urten; hortik bazoaze ez dozue topauko ganadu bat be etxean". Eta bertan lotu ginan, baina hamaika negar egin genduan guk orduan".

Zer esango zeunskioe irakurleari?

Irakurleak irakurri arte ez dago liburua amaituta. Zer da, ba, inork leidu ez dauan liburua? Guk irakurlea gogoan dogula idatzi dogu, irakurleari begira. Ea gustuko dozun!





Matilda efektua

t: Xabier Díaz

Otsailaren 11n hasi nintzen lerro hauek idazten, emakume eta neska zientzialarien egunean. Aspaldi ere, Aikor! aldizkarian⁽¹⁾, mintzatu nintzen emakume teknologoaren egunaz. Euskararekin eta hainbat aldarrikapenekin gertatzen den bezala, halako egunak ez dira zorionekoak, adierazten baitute oraindik ere beharrezkoak direla. Baina horrek ez du esan nahi betiko horrela izango denik: egunen batean, arazo horiek konpontzen ditugunean (euskara, generoa, gaixotasunak...), orduan bai benetan ospatuko ditugula.

Dena dela, eta semeekin, ikasleekin eta zenbait lagun eta lankideekin izandako eskarmentuagatik, gai hauek hain ondo ulertzen ez diren susmoa daukat. Zergatik emakume zientzialariak edo teknikariak goraiatu, eta ez gizon zein emakumeak? Azken finean, eta generoari erreparatu barik, gizarteari, guri guztioi ondo etorriko zaigu zientzian eta teknologian interesa duten gero eta pertsona gehiago egotea, ezta? Gainera, Historian emakume zientzialaririk edo teknologorik egon ez bada, zer egingo diogu, bada?

Mateo efektua⁽²⁾ Robert K. Merton soziologoak definitu zuen 1968an. Azaldu zuenez, ondasun asko edo ondo baloratu-

ta dauden pertsonak hobeto baloratzeko joera daukagu, eta, beraz, geroz eta ondasun gehiago izango dute eta hobeto baloratuta egongo dira, gutxiago dutenen edo ospe gutxiago dutenen kalterako. Efectu hori argitalpen akademikoetan ere gertatu ohi da: zientzialari ospetsu batek ikertzaile ezezagun batek baino sinesgarritasun handiagoa lortzen du, nahiz eta haien lanak parekatuak edo antzekoak izan. Horrek eskola porrotean ere eragina duela ikusi da ikerketa batzuetan⁽³⁾. Matilda efektua⁽⁴⁾ Margaret W. Rossiterrek definitu zuen 1993an: emakume zientzialarien lorpenak ez aitortzea da, haien lana

Matilda efektua da emakume zientzialarien lorpenak ez aitortzea, haien lana askotan bakarrik gizon lankideei egotzita

askotan bakarrik gizon lankideei egotzita.

Lerro hauek idazten nabilela, Lorena Fernandez Alvarez @loretahur ingeniari informatikoaren bidez jakin izan nuen otsailaren 14an 75 urte bete zirela ENIAC historiako lehenengo ordenagailu elektronikoa jendaurrean aurkeztu zela⁽⁵⁾. Proiektu militarra izanik, isilean gorde zuten Bigarren Mundu Gerran, baina gerra amaituta proiekturako dirua ere amaitu zen. Dirua lortu nahian, proiektuaren sortzaileek – Presper Eckertek eta John William Mauchlyk – film bat egin zuten, besteak beste, pizten eta amatatzen ziren argi distiratsua eta “burmuin elektronikoa” moduko hitzak erabilia. Oso marketin arrakastatsua izan zen. Programatzaileei buruz, ordea, ez zen ezta aipamenik ere egin; programatzaileak matematikariak eta fisikariak ziren sei emakume izan ziren. Are gehiago, batzuek esan zuten ordenagailuaren ondoan posatzen zuten moduloak zirela.

Anonimatuan

Laurogeiko hamarkada arte anonimatuan egon ziren Betty Snyder Holberton, Jean Jennings Bartik, Kathleen McNulty Mauchly Antonelli, Marlyn Wescoff Meltzer, Ruth Lichterman Teitelbaum eta Frances Bilas Spence. Euren egin zituzten lehenengo algoritmoak, software aplikazioak eta programazio ikastaroak, baina inork ez zien inongo aitortzen eskaini. Historian hainbat emakume egon dira zientzian eta teknologian lanean, garapenak egiten, ikerketak, aurkikuntza... inongo aitortzen barik. Informatikan, Ada Lovelace, arestian aipatutako emakumeak, auzoko neska informatikaria... Interneten #emakumeak zientzian bilatuta hainbeste daude gure inguruan.

Beraz, has gaitetzen emakumeen babilioa aitortzen, zabaltzen, erakusten... Neska gazteek merezi dute eredu horiek ezagutzea; denok merezi dugu. Eta bukatzeko beste kontu bat: aitortza ez da gure gizarteak maila praktikoan talentu gehiago behar duelako, baizik eta emakumeen berezko eskubidea delako eta merezi dutelako.

(1) Emakumeak, Zientzia eta Teknologia, Aikor aldizkaria 2011-11-16 Xabier Díaz <https://labur.eus/aikormatilda>

(2) Mateo efektua, wikipedia, <https://labur.eus/aikormatilda>

(3) Are There any Matthew Effects in Literacy and Cognitive Development?, Camilla Kempe, Anna-Lena Eriksson-Gustavsson & Stefan Samuelsson, <https://labur.eus/aikormatilda>

(4) Matilda efektua, wikipedia, <https://labur.eus/aikormatilda>

(5) ENIAC cumple 75 años: la historia de éxito tecnológico y de machismo del primer ordenador, Jorge G. García, El País, 2021-02-14, <https://labur.eus/aikormatilda>

Gure tripodea: iragana, oraina eta geroa

Bat kenduz gero, hankaz gora doa

t: Juan Luis Goikoetxea

Tripodea hiru oineko aulkia da, adibidez. Berba grekoa τρίπους da, hiru oineko esan gura du.

"Iraganak ez du eraginik orainean" errepikatu ohi da; iragana joan edo joana da. Hala ere, iragana hur dago lehentxoago iragana da eta-, baita urrun ere, neolitora jotzen badugu. Aspaldian haritza mehaztu eta pinuz jantzi zituztelako gure basoak daukagu orain pinudiz josita mendialdea. Beraz, iraganaren eragina hortxe da. Edo edatunitsuak ginelako daukagu gibela zirrosiak jota. Oraingo gauzen kausa badago iraganean.

Bestalde, "orainean jan eta lo, etorkizuna auskalo" dioenari ere geroak bost axola dio. "Aska nadin esanez, nazka dadin gerokoa" praktikatzan dihardu. Beroak gora egingo duela entzunik ere, lasai barreiatuko ditu plastikoak. Umore zakarrez berehala erantzungo du: "Beroa gora badator, urtu egingo ditu nik botatako plastikoak". Hala ere, kontzientziaren ha-


rra bizirik dutenak energia garbiaren alde agertuko dira, seme-alabei nahiz ilobei notariorik behar ez duen ondarea uzteko.

Esanak esan, gertatzen dena zera da: gaur egunetik gerora so egiteak dar-dar jartzen gaituela. Hala eta guzti, tripodearen hanka hau ere ezin ken daiteke.

Behar bada, geure baitako bakea galduta bizi gara, smartphoneari egunean 100 bider begiratu, beti urduri, azkeneko txioaren, whatsapparen, albistearen bila, batetik bestera arnasestuka; hurkoarekin lehian; abiaduraren menpeko.


Joxe Arregik dioskunez, naturaren erritmora eta bakera itzuli beharko genuke, arnasa hartuko badugu, biziko bagara. Ez, ordea, bake geldira, eragilera baino. Naturatik gatoz, eta natura gara, eta idazten ari naizen ordenagailua ere natura da.

Azken batean, baina, justizia da bakearen izena. Itzul gaitezen naturaren bakera, entzuteko txorien txioa eta haizearen soinua, eta gardenago ikusteko bizi garen orainetik iragana nahiz geroa, tripode sendoa.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31



GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, enketaren
Azuloen komunitateak
Mantentze garbi-ikusiak
Delegak eta lokalak
Olinu asaniero garbiak
Ikusituen
Zabor biltze



Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekoa Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93



**Sondigarbi
GARBITEGIA**

ITURRIGANE, 2 EGUNERO
635584941 8:00-22:00



**TXORIERRI
Inmobiliaria**

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

erregandik gerta

ABIJIKULABITZA - TASARRIA
ALOKATZEAK - ENKULABITZEAK
SALEROKETAK
SEGUROR BILBAOREN AGENTZIA

Etxeko sukaldaritza

Izokina espinakakaz



t: Maite Lekerika / a: fmdidiabetes.org.

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 800 g izokin-trontzo (tiratan ebagia)
- 2 porru (zuria)
- 200 g espinaka
- Bermut zuria (zurrusta bat)
- 125 ml esne-gain
- Oria, gatza eta piperbeltz baltza

Prestetako errea:

Gatza, piperbeltza eta bermuta nahas-

tuko doguz eta arrainari botako deutsagu gaintik (apur bat gordeko dogu barazkiei botatzeko). Beratzen itxiko dogu 30 minutuan. Porruak juliana eran ebagiko doguz, eta su ez-titan erregosi. Espinakak garbituko doguz eta tiratan ebagiko doguz. Porruari gehituko deutsaguz, minutu-pare baten erregosiko doguz eta esne-gaina gehituko dogu. Zartagin baten, eta orio-tanta batzukaz, izokina alde bietatik egingo dogu apur bat. Gorde dogun saldea barazkiei botako deutsegu, eta beharrezkoa bada, gatza botako dogu. Barazkiak lau plateretan banatuko doguz eta hareen gainean izokina ipiniko dogu.

Jogurtezko, azafrainko
eta kardamomozko
irabiakia

a: tartashappy.blogspot.com

Osagaiak (hiru lagunentzat):

- 200 g jogurt grekoa
- Azafrai-izpiak
- 20 g kardamomo berde (ehoa)
- 30 g arrosa-ziropa
- 100 g azukre baltz
- 10 pistatxo
- 10 almendra
- 200 g esne
- Izotza

Prestetako errea:

Ontzi baten 100 g esne berotuko dogu. Azafrain eta kardamomoa gehituko doguz, sua amatatuko dogu eta bost minutuan jalkiten itxiko dogu. Pistatxoei oskola kenduko deutsegu eta pistatxoak almen-drakaz batera zehatuko doguz. Gordeko doguz. Berotutako esnea (azafrainagaz eta kardamomoagaz) irabiatzeko ontzi baten botako dogu. Gainerako esnea, azukrea eta jogurta gehituko deutsaguz. Irabiau-ko dogu harik eta testura lodia eta krematsua lortzen dogun arte. Edalontzi batzuetan izotza ipiniko dogu. Arrosa-ziropa gehituko dogu, eta ondoren, irabakia. Pistatxoak eta almendrak erabilia apainduko doguz irabiakia.



GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

ERREKA ONDO
JATETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familiën bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.turbulus.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Herriak ez du barkatuko* (Elkar) , Ira-
ti Goikoetxea Asurabarrena. (XXII.
Igartza Saria)
- Aingeruaren pribilegioak* (Erein) ,
Dolores Redondo
- Dendaostekoak* (Susa) , Uxue
Alberdi Estibaritz
- Turista klasea* (susa) , Kattalin
Miner perez
- *Lilurabera* (Alberdania s.l.) , Yurre
Ugarte

LITERATURA: UMEAK

- Txoriak* (Pamiela) , Natacha Orte-
ga. II: Lucia Franco
- Zuhaitzera igo zen behia* (Picarona)
Gemma Merino
- Munstro Arrosa* (Denonartean) ,
Olga de Dios
- Arrautzan* (Pamiela) , Emma Lidia
Squillari
- Sorpresa!* (Ikaselkar) , Agurtzane
Ortiz Lopetegi

Sudokua

6	8			7		1
					9	5
			3		7	
	4	1		8		7
			7	1		6
				5		
	1			9	4	6
9	7		8			1
			1			3

3	9	7	4	1	2	9	5	8
2	1	5	3	8	9	4	7	6
9	8	4	9	5	7	2	1	3
6	9	1	4	9	3	2	5	7
2	9	8	7	1	4	7	3	5
7	5	3	8	6	1	4	9	2
8	7	6	2	3	1	5	6	4
5	3	9	6	4	8	7	2	1
4	1	4	7	2	9	6	3	8

 **Hertz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hertz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazioa de euzko



Goitioltza euzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Hitzaldiak

Zamudio

> "Emakumea Historian zehar". Martxoaren 6an, 19:30ean, Gaztestazioan.

Larrabetzu

> Literaturaz berbetan: *Erle langileen amodioak*, Aroa Uharte itzultzailearen eskutik. Martxoaren 25ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Zamudio

> Neskentzako autodefentsa. Martxoaren 13an, 18:30ean, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: martxoak 12.

Larrabetzu

> Patchwork ikastaroa utzi eta bertan izena ematea. Martxoaren 8tik 15era, Anguleri kultur etxean.



Ikuskizunak

Derio

> Kantu Kolore. Martxoaren 19an, 18:00etan, Gurea Aretoan. Sarrerak www.derioikoudala.net webgunean salgai.



Zamudio

> Filma. Martxoko domeka guztietan, 18:00etan, Gaztestazioan.

Larrabetzu

> *Erresistentzia arazo fisikoa da antzezlan*a, Maite Aizpuruaren eskutik. Martxoaren 7an, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.

Txapelketak

Zamudio

> Mahai-tenisa. Martxoaren 20an, 19:30ean, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: martxoak 19.

Irteerak

Zamudio

> GR280. Martxoaren 27an, Gaztestazioak antolatua. Izena emateko azken eguna: martxoak 26.

Musika

Larrabetzu

> Domekak Hori Baien: Hatxe. Martxoaren 14an, 18:30ean.



Zu argazkilari

Zure herriko txorrik ederrenei argazkia egin, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali. Argazkiak hileroko argitaratuko ditugu Aikor! aldizkarian eta www.aikor.eus webgunean.



Iratxe Pirla (Larrabetzu)

Ora in inoiz baino ederrago!



Amar
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-18:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 beheza
Zamudio
94 4520419



Ile-apaindegia

M^a Antonia Llodio TXPI

Txorieriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



IZ

ile-apaindegia
estetika

Txantxangotri, 2
ZAMUDIO
946 036 943



LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izuguna Facebook-en



GALAISA Etengabeko ordutegia

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA



PELUKERIA
ESTETIKA

LARRABETZU


Anguleri n^o 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

GASOLINDEGI BARRIA

SASINE INDUSTRIAGUNEA LARRABETZU

BIDEKO

ERREPIDEAN BIDELAGUN



Berton 5 mikratan filtratutako bakterien eta lizunen aurka tratatutako kalidadeko gasolioa

**Garraiolaria
bazara,
egin bazkide!**

**Partikularra
bazara,
emon izena
deskontua
jasotzeko!**

larrabetzu@hiru.org

T: 629 162 230

www.bidekoaterpe.eus



GASOLIO ONENA, PREZIO EZIN HOBEAN!